

**Bizkaiko Genero
Indarkeriaren
Behatokiaren
ebaluazioa,
2004-2008ko
epealdia**

**Bizkaiko Genero
Indarkeriaren Behatokia**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia

Emaitzen txostena



Aurkibidea

SARRERA	1
EBALUAZIOAREN XEDEA.....	2
AZTERKETAKO TEKNIKAK.....	3
HELBURUEN ETA PROZESUEN AZTERKETA.....	6
1. ildoak: Behatokia abiarazteko jarduerak eta funtzionamendu eremua.....	8
2. ildoak: Bizkaiko genero indarkeriaren arloko datuak identifikatzea, bilatzea eta biltzea	20
3. ildoak: Datu horiek kudeatzea, tratatzea eta ikusaraztea informazio bihur daitezen	30
4. ildoak: Genero indarkeriaren arazoa aztertzea, eztabaidatzea eta erantzuna emateaz arduradunen kudeaketa-arduradunekin informazioa erkatzea	45
EDUKIEN ETA EMAITZEN AZTERKETA BGIB-KO PARTAIDEENTZAKO KOTSULTAREN ETA GALDETEGIEN BIDEZ	46
Adierazleen Lan-taldea eta osoko bilkura.....	48
Udal Harremanetarako Sarea	62
Web orriaren bisitariak	73
Indarguneak eta hobetu beharrekoak	76
AZKEN ONDORIOAK ETA BALORAZIOAK	80
ERANSKINAK: TRESNAK ETA INFORMAZIOA BILTzea	89
Adierazleen Lan-taldea eta osoko bilkurarako galdetegia	90
Udal Harremanetarako Sarearentzako galdetegia	103

SARRERA

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren (BGIB) eremuan buruturiko ebaluazio-jardueren emaitza da honako txosten hau (2004-2008).

Lehen zatiaren ardatza *Behatokia planifikatu eta antolatu den modua (xede eta diseinua) eta hura garatu den modua da (prozesuak eta edukiak).*

Bigarren zatiaren oinarria proiektuaren edukien eta emaitzen azterketa da, hots, *eginiko jarduketan eragina zein izan den*, eta gainera, ezaugarri berritzaileak, errentagarritasuna, eraginkortasuna eta emaitzak egokitzeko azterketa bat ezarri dira; izan ere, azterketa horretan proiektua hobetzeko posibilitateak aztertzen dira.

Etengabeko ebaluazio sistema du Behatokiak, BGIBren helburuei egokitua, ebaluazio prozesuaren, ezarpenaren eta plangintzaren eta buruturiko ekintzen eta izandako emaitzen eta eraginen azterketaren arteko elkar elikatzea ahalbidetzeko eta, era berean, proiektuaren diseinuaren eta horren aplikazioaren arteko egokitzapena ezagutu ahal izateko. Horrekin guztiarekin, ezarpen egokia berriz zehaztu eta hobetu ahal izango da. Hala, eginiko ebaluazioaren emaitzek hobetu egingo dute proiektua, eta abiapuntua emango dute erakundearen jarduketak 2009-2012 epealdian zuzenduko dituen lan-taldea zehazteko eta garatzeko.

EBALUAZIOAREN XEDEA

Hauexek izan dira proiektuaren lehen etapa hori aztertzeko helburuak (2004-2008), hain zuzen ere **xedeak eta prozesuak** aztertzeko:

1. BGIBren emaitzak finkatzeko azterketa
2. Eginiko jarduerak eta BGIBren proposamen orokorrak konparatzea
3. Ikasitako irakasgaiak azterzea eta akatsak zuzentzea
4. BGIB egokia izatea proposaturiko azken emaitzak lortzeko

BGIBren eraketa berezia dela-eta interesgarria da proiektuko bi maila bereiztea beti:

- proiektua osatzen duten **banako ekintzak**
- eta **Sistema**, hots, BGIB osotasunean hartuta bere helburuak dituen eta erakundearen zatiak banatuta ematen dituen

AZTERKETAKO TEKNIKAK

Teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak uztartu dira txosten hau egiteko, eta horiei esker, proiektuaren garapen mailari buruzko informazio garrantzitsua bildu ahal izan da.

DOKUMENTUEN AZTERKETA

Proiektu osoan sortutako material osoaren berrikuspen dokumentala egin da, eta agiri hauek nabarmentzen dira:

- Urteko txostenak;

- BGIBren lehen etapan eginiko jarduera bakoitzean sortutako dokumentuak;

- Proiektuaren koordinazioari eta funtzionamenduari buruzko dokumentazioa;

- BGIBren lan-taldearen eta osoko bilkuraren bileren aktak.

Dokumentuen azterketak, proiektuan garaturiko prozesuak eta helburuak biltzeaz gain, lagundu egin du informazio hori abiarazitako ekintza bakoitzaren ezaugarrietara eta proiektuak sistema gisa izan dituen funtsezko ezaugarrietara bideratzeko.

OHARRAK EGINEZ PARTE HARTZEA

Jarduera hori funtsezko tresna da proiektua ebaluatzeko.

Proiektuan buruturiko jardunaldietan, jardueretan eta bileretan parte hartze handia izatean datza oharrak eginez parte hartzea.

Bilkuren garapenari buruzko deskribapen-oharrerako marko bat garatzea da helburu nagusia, eta ezaugarri berritzaileak, izandako eragina eta pertsona eta erakunde kolaboratzaileen eta hartzaileen partaidetza ikusiz.

Proiektuaren 2004-2008ko lehen etapa horretan, bilera eta jarduera gehienetan hartu du parte INFOPOLISko talde teknikoak:

1. **Osoko bilkurak:** 2004ko ekainaren 25ean eta urriaren 22an; 2005eko urtarrilaren 25ean eta abenduaren 21ean; 2006ko uztailaren 7an eta irailaren 15ean; eta 2008ko urtarrilaren 10ean, apirilaren 11n eta abenduaren 15ean.
2. **Adierazleen Lan-taldearen bilkurak:** 2005eko urtarrilaren 20an eta apirilaren 8an; 2006ko maiatzaren 5ean, ekainaren 16an eta irailaren 15ean; 2007ko martxoaren 20an, irailaren 21ean, urriaren 19an eta azaroaren 9an; 2008ko otsailaren 8an eta 29an, martxoaren 14an, apirilaren 15ean eta 29an, maiatzaren 27an, ekainaren 18an, irailaren 19an, urriaren 3an eta azaroaren 7an eta 14an.
3. **Behatokiaren jarduerak ezagutarazteko egintzak,** Galdakaoko Udalak 2005eko azaroaren 17an eta 18an antolaturiko Berdintasunerako bigarren udal jardueretan aurkeztu beharreko materialak egitea, baita Bizkaiko Jaureriko Abokatuen Elkargoak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2006ko urtarrilaren 19an antolaturiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legeari buruzko Jardunaldia eta Radio Bilbaoko "La ventana" izeneko irratsaioan 2007ko abenduaren 13an parte hartzea ere.

PARTAIDEEN GALDETEGIAK

BGIBren jardueretan nola edo hala parte hartzen duten edota erakunde horretakoak diren erakundeek beteriko datu kuantitatiboen hainbat fitxarekin osatu da azterketa hau. Informazio osagarri horri esker, jardueren egoera zein den jakin ahal izan da, eta buruturiko prozesuak, lorturiko emaitza partzialak, eragina eta iraunkortasuna adierazi dira.

Osoko bilkurako kideentzat izan dira galdetegiak, baita adierazleen lan-taldekoentzat, Udal Harremanetarako Sareko kideentzat eta BGIBren web

korporatiboko bisitarien zatire. Ondoko item hauen inguruan bideratu da informazio-bilketa:

- Helburuak betetzea
- Funtzioen garapena
- Lan-prozesua
- BGIBk garaturiko produktuen balorazioa
- BGIB ezagutaraztea
- BGIBren etorkizuna

HELBURUEN ETA PROZESUEN AZTERKETA

Prozesuaren azterketa, sarreran agerrarazi denez, **proiektua burutzeko moduari** eta emaitzak lortzeko eta proposaturiko helburuak betetzeko abiarazitako mekanismoei buruzkoa da.

Hori dela-eta, helburu horiei dagokienez ez baizik eta **BGIBren lanek planaren definizio operatiboaren proiektuan ezarritako lau ildo estrategiko handiei dagokienez egin da azterketa:**

1. Behatokia abiarazteko jarduerak eta funtzionatzeko markoa.
2. Bizkaiko genero indarkeriaren arloko datuak identifikatzea, bilatzea eta biltzea.
3. Datu horiek kudeatzea, tratatzea eta ikusaraztea informazio bihur daitezen.
4. Informazio hori genero indarkeriaren arazoari erantzunak emateko kudeaketaren erakunde arduradunetako ordezkariekin aztertzea, eztabaidatzea eta erkatzea, ezaguera bihur daitezen.

Hauexek dira BGIBk lortu nahi dituen xedeak:

- **1. xedea:** Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatea eta bilakaera ezagutzea.
- **2. xedea:** herri erakundeek genero indarkeriaren eremuan eskaintzen dituzten zerbitzuak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

Hauexek dira helburuak lortzeko planifikaturiko jarduerak:

- Bizkaiko genero indarkeriari buruzko datuak integratzen dituen aplikazio informatikoa diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea.
- Arretako eremuetan dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko organo iraunkor gisa jardutea.
- Zerbitzuek emakumearen kontrako indarkeriaren arloan erabilitako informazio sistemak eta adierazleak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.
- Antzeko erakundeekin parte hartzea eta harremanak izatea eta beste administrazio batzuek hasitako eta planteaturiko esperientziak eta berrikuntzak ezagutzea.
- Elkartruckerako eta komunikaziorako foro bat eratzea, genero indarkeriaren arloan ikerketa-taldeek aztertzeko lana errazagoa izan dadin.
- Baliabideen eskaintzaren hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak egitea eta erakundeei helaraztea.
- Indarkeriaren tamainari eta eboluzioari buruzko diagnostiko eta ebaluazioko azterketak eta txosten teknikoak egitea.
- Biktimentzako neurri integralen egokitzapena aztertzea, horien ondorioak eta eraginak ikertzea eta jardunaren adibideak aztertzea.
- BGIBk eginiko jarduketan urteko txosten bat egitea, eta horien berri ematea Batzar Nagusiei (Memoriak).
- Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia egitea.

Proiektuaren jarduketa-ildo bakoitzari buruz garaturiko prozedurak:

1. ildoak: BEHATOKIA ABIARAZTEKO JARDUERAK ETA FUNTZIONAMENDU EREMUA

Ardatz honen helburu nagusiak Behatokia eratzeko jarduerak dakartza topaketa eta informaziorako gune gisa, baterako azterketa indartuz eta informazioa zabaltzeko sistemak gaituz.

Hauexek dira ardatz hau betetzeko aurreikusitako jarduerak:

1. Behatokia eratzea eta kideak izendatzea.
2. Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia egitea, eta buruturiko jarduketan urteko txostenak gauzatzea.
3. Behatokiaren lanaren plangintza: Laneko plana 2004-2008.
4. Osoko bilkurak eta lan-taldearen bilerak.
5. Web gunea sortzea, irudia diseinatzea eta postontzi korporatiboa.
6. Oinarrizko dokumentazioa, gomendioak eta protokoloak biltzea eta bilketako tresnak.

BURUTURIKO EGINTZAK:

Behatokia eratzea eta kideak izendatzea

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuak araututa dago erakundearen sorrera (BAO, 63. alea, 2003ko apirilaren 1ekoa), azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak aldatua (BAO, 226. alea, 2004ko azaroaren 23koa).

Araudi horren bidez, Behatokiaren eraketa araupetzen da eta erakundearen eta elkarteen ordezkariak biltzen dira; izan ere, erakundearen presidentea eta presidenteordea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari dagozkio; eta kideak foru erakundearen sailen, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkiko udalerrien eta mankomunitateen eta Bizkaian genero indarkeriaren eremuan diharduten elkarteen artean daude banatuta ("Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako foroa"ren ordezkariak bat, (Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkerien Politikarako Arloak eratua).

Osoko bilkuraren eraketa (2008) eta aurreko ibilbidea:

PRESIDENTEA

Gizarte Ekintzako foru diputatua:

Juan M.^a Aburto Rike

PRESIDENTEORDEA

Gizarteratzerako Zuzendari Nagusia:

Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna, Gizarteratze Saileko zuzendari nagusia.

Ordezkoa: Jon Andoni Rekagorri Barrenetxea jauna, Gizarte Gaietarako Saileko Gizarteratzerako zuzendari nagusia.

IDAZKARITZA

Gizarteratzerako Zuzendaritza Nagusia:

Berta Diaz Arbesu andrea, Emakumearen Atalburua

Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Emakume eta Famili Zerbitzuko Administrazio Orokorreko teknikaria

KIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze Saila:
Maria Dolores Menchaca Araluze andrea, Emakume eta Famili Zerbitziburua
 Ordezkoa: Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintza eta Azterlanen Zerbitziburua
- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio eta Udal Harremanen Saila:
 Anselmo Ardanza Sustatxa jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea
 Ordezkoa: Miren Begoñe Lopez-Uribarri Goicolea, Pertsonaleko Zerbitzu Juridikoko burua
 2004an, 2005ean eta 2006an, Herri Administrazio eta Udal Harremanen egungo Sailak izendapen berria izan zuen: Herri Administrazio Saila.
- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saila:
 Cruz Gorbeña Birichinaga andrea, Lan eta Trebakuntzako Zerbitzu Orokorretako zerbitziburua
 Ordezkoa: Maite Egusquizaga Lopez de Barrera andrea, Lan Zerbitziburua
 2004an eta 2006an, Lan Sailaren ordezkaria izan zen Arantza Ciria Uriarte Behatokian, Azpiegitura Ekonomikoko Zerbitziburua.
- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiaren kabinetea:
 Iñigo de Iturrate Ibarra, *Herritarren Berdintasun eta Eskubideen zuzendari nagusia*
 Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako Idazkaritza Teknikoa
 2004, 2005 eta 2006an, Genero Politiken Idazkaritza Nagusi Teknikoko kidetza Behatokian egokitu zitzaion Pilar Dosal Perez andreaki, Genero Politiken idazkari nagusi teknikoa. 2007ko maiatzeko hauteskundeen ondotik, Herritarren Berdintasunaren eta Eskubideen Idazkaritza Nagusia sortu zen.

Eusko Jaurlaritza

↑ Emakunde:

Miren Arantza Madariaga Aberasturi andrea, idazkari nagusia
Ordezkoa: Ander Bergara Sautua, aholkularia.

2004an, Izaskun Moyua Pinillos andrea izan zen Emakunderen ordezkaria Behatokian, idazkari nagusi gisa.

↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

Javier Inda Ortiz de Zarate jauna, Segurtasun Kabineteko zuzendaria
Ordezkoa: Jose M.^a Gaona Fernandez jauna, Saileko teknikaria

↑ Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila:

Kontxi Gabantxo Laka andrea, Saileko aholkularia

↑ Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila:

Elena Ayarza Elorriaga andrea, Gizarte Ongizateko zuzendaria.
Ordezkoa: Isabel Paredes Zabala andrea, Saileko teknikaria.

Hauexek izan ziren Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren ordezkariek Behatokian 2004an: Angel Bao Perez, Gizarte Ongizateko zuzendaria; 2005ean, Luis Fernando Consuegra Revuelta, Gizarte Gaietarako sailburuordea; eta 2006an Carmen Vicioso Etxebarria andrea, Gizarte Ongizateko zuzendaria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrak eta mankomunitateak (EUDELeK izendatu beharrekoak)

↑ Bilboko Udala (2008):

Nekane Alonso Santamaria andrea, zinegotzia

↑ Ermuko Udala (2004-2008):

Natividad Alonso Estalayo andrea, zinegotzia

↑ Ugaoko Udala (2008):

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea, alkatea

2004an, 2005ean eta 2006an txandakatu egin ziren Behatokian Udal hauek: Abadiñokoa (2004, 2005, 2006), Arantza Aramburu Derteano zinegotzia ordezkariekin; Gautegiz-Arteagakoa (2004), Miren Arantza

Madariaga Aberasturi alkate andrea ordezkariarekin; eta Berangokoa (2005, 2006), Miren Dobaran Urrutia alkatea andrea ordezkari.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak eta erakundeak

↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloan eraturiko Emakume eta Gizonen berdintasunerako foroaren izenean:
ACAMBI-BIZKAIKO BULARREKO MINBIZIAREN ELKARTEA
Maria Jose Temiño Sebastian andrea (2007ko azaroaren 7an hila) eta Kaika Gil andrea.

2004an, Florencia Dorronsoro Bodegas presidentea izan zen ACAMBIren ordezkaria Behatokian.

↑ Genero indarkeriaren arlotik:
ARGITAN-Emakumearentzako aholkularitza zentroa
Karmele Ozaita Andres andrea, presidentea
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina

2004, 2005 eta 2006an, Blanca Pangua Bedia, presidente gisa, kideen titularitatea izan zen, eta Karmele Pangua Bedia ordezkaria.

↑ Genero indarkeriaren arlotik:
AUZOLAN, Arreta Psikosozialeko modulua
Marta Dolado Galindez andrea, aholkulari juridikoa
Ordezkoa: Ana Fernandez de Garayalde Ulacia andrea, soziologoa

Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia egitea

2004ko ekainaren 26ko osoko bilkura batean, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudi proposamena bat aurkeztu zen, osoko bilkurak urte hartako urriaren 2an onetsia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 18ko 5.016 Foru Aginduaren bidez dago araupetuta araudi hori (BAO, 82 zk. 2005eko maiatzaren 3koa).

Urteko txostenak egitea

Behatokiak, gaur egun, jardueren memoria bat egiten du, osoko bilkuran onesten dena, eta erakundearen web gunetik sar gaitzke bertan. Dokumentua euskaraz eta erdaraz dago; izan ere, erreferentziako urtean egindako jarduerak biltzen ditu eta produktu nagusien emaitza dakar. Gaur egun, web gunean ikus daitezke 2004, 2005, 2006 eta 2007ko urteko memoriak.

Laneko Plana 2004-2008 egitea

Behatokiaren plangintzari dagokionez, Behatokiaren laneko planerako proposamen bat aurkeztu zen 2004ko ekainaren 26an 2004-2008ko epealdirako, eta onetsi egin zen urte bereko urriaren 2ko osoko bilkuran, aurkezturiko alegazioekin.

Osoko bilkurak

Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudiaren arabera, Behatokia urtean bi aldiz bildu da osoko bilkuran 2004-2008 epealdian.

Salbuespenez, 2007ko ekitaldian, ez zen osoko bilkurarik egin, Behatokiaren epealdi horretako memorian agerrarazi denaren arabera, *“hauteskunde garaian abiarazten den eta administrazioaren jarduera geldiarazten duen itzarote-protokoloa dela-eta; gainera, atzeratu egiten du erakunde eskudunek Behatokirako ordezkari berriak izendatzeko prozesua”*.

Behatokiaren osoko bilkuren historia (2004-2008):

2004ko ekainaren 25ean eta urriaren 22an;

2005eko urtarrilaren 25ean eta abenduaren 21ean;

2006ko uztailaren 7an eta abenduaren 15ean;

2008ko urtarrilaren 10ean, apirilaren 11n eta abenduaren 15ean.

Lan-taldeak eratzea

Behatokiaren funtzionamendua halako moldez bideratzen da non haren erakundeek ahalik eta protagonismorik handiena izaten baitute. Lanerako metodologia gisa, Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudiak lan-taldeak sortzea dakar, gogoetarako guneak diren aldetik, non ezaguera-multzoa, ezaguera elikatzen duten pertsonak eta iturri batzuk eta besteak erkatzean azaltzen diren kontrasteak agertzen baitira.

Behatokiaren 2004-2008ko Laneko Planaren proposamenak dakarrenez, lan-taldeak sortu nahi dira bi arlo interesgarriren inguruan: jarduteko protokoloak eta lege tresnak bultzatzea eta adierazleak zehaztea. Hala eta guztiz ere, Emakundek alegazio bat aurkeztu zuen, lehen kasuari dagokion jarduketara EUDELEk (Euskal Udalerrien Elkartek) Emakunderen lankidetzarekin bultzaturiko BERDINSAREAREN (Berdintasunerako eta Indarkeriaren kontrako Euskal Udalerrien Sarea) helburuak eta funtzioak eratu arte atzeratzea proposatzeko. Sare horren agendan antzeko asmoa bildu denez, Behatokiak protokoloak bultzatzeko funtzio hori Sareak burutzen duen laguntzaren eta zabalkundearen bidez egitea aukeratuko da. Hala, dokumentuak bildu eta ondoren informazioa ezagutaraziko da, protokolo horiek biltzen dituzten dokumentuak eskuratzea erraztuz Behatokiaren web gunean dauden hainbat plataformaren bidez, betiere erakunde titularrek egoki irizten badiote.

Adierazleen lanaren ildoari dagokionez, Adierazleen Lan-taldea sortzea onetsi zen 2004ko urriaren 2ko osoko bilkuran, hauexek zehazteko: “datu zorrotzak eta fidagarriak izatea ahalbidetzen duten adierazleak, emakumeen kontrako indarkeria eta ezaugarriak ezagutzeko bikote harremanetan, denboran konparatu eta homologatu daitekeen oinarri baten gainean”.

Hauexek dira Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren koordinaziopean funtzionatzen duen lan-talde honetako erakundeak:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saila.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Berdintasun eta Eskubideen Zuzendaritza.

Emakunde.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila.

EUDEL: Bilboko Udala (2005-2008), Gernikako Udala (2005-2008), Ermuko Udala (2008).

ARGITAN Emakumearen Aholkularitza Zentroa.

AUZOLAN Arreta Psikosozialeko Modulua

Adierazleen Lan-taldearen bileren historia:

2005ko urtarrilaren 20an eta apirilaren 8an;

2006ko maiatzaren 5ean, ekainaren eta irailaren 15ean;

2007ko martxoaren 20an, irailaren 21ean, urriaren 19an eta azaroaren 9an;

2008ko otsailaren 8an eta 29an, martxoaren 14an, apirilaren 15ean eta 29an, maiatzaren 27an, ekainaren 18an, uztailaren 18an, irailaren 19an, urriaren 3an eta azaroaren 7an eta 14an.

Irudia diseinatzea

Behatokiak hasieratik izan du logotipo bat erakundearen bereizgarri, izenaren letrekin osatua. Identifikazio logotipo hori erakundearen web gunean zein hark egindako produktuetan ageri da; bere baitan eginiko dokumentuei zigilua jarri eta bere jarduera eremuan erabilitako materialak ezaugarritzen ditu.

Postontzi korporatiboa

Era berean, jarduera hasi zenetik, Behatokiak postontzi korporatiboa du, BGIB.bgib@bizkaia.net, eta bertatik egiten dira jakinarazpenak, deialdiak, informazio-eskaerak, etab. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoan diharduten tokiko erakundeek edo udalez gaindiko erakundeek emakumeenganako indarkeriaren kontra praktikan jarritako jarduketei buruzko dokumentazio, datu edo informazio eskaerak jaso eta erantzuna ematen zaie postontzi horretan, baita postontziaren funtzioak garatzeari dagozkion datu interesgarriak ezagutarazteko iristen diren jakinarazpenak ere.

Web gunea sortzea

Behatokiak web gune bat du, 2004tik hona eskuragarri dagoena, Gizarte Ekintza Sailaren gunearen bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren kokapen elektronikoan ondoko helbide honetan:

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Honako helburu orokor hauek ditu Behatokiaren web guneak: genero indarkeriari buruzko informazioa ezagutarazteko modua ematea; laneko tresnak diseinatzea, eguneratzea eta ezagutaraztea; eta Behatokiaren eta erakunde informazio-emaileen arteko harremanak eta ideiak eta dokumentuen ibilera erraztea.

Azken lau urtean, euskaraz eta gaztelaniaz dagoen web guneak hainbat berregituraketa izan ditu, eduki eta atal berriei tokia uzteko. Gaur egun 15 sarrera ditu:

- ↑ **Definizioa:** Behatokiaren aurkezpena; aurrekariak; helburuak; funtzioak.
- ↑ **Kideak:** Behatokiko pertsonen zerrenda, karguak eta jatorrizko erakundea biltzen dituenak.
- ↑ **Bilerak:** osoko bilkuretan hitzartutako egutegia eta dokumentazioa.
- ↑ **Dokumentuak:** ondoko hauei buruzko dokumentazioa: protokoloak; legeria, nazioarteko tresnak; azterlanak eta gidak; BGIBk eginiko dokumentazioa. Adar hori erabaki zen Behatokiaren jarduerak sortutako dokumentazioa laburbiltzeko eta ezagutarazteko:
 - Behatokiaren laneko plana (2004-2008)
 - Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
 - Dosierra: "Bizkaiko Lurralde Historikoan genero indarkeriaren arretari buruzko zifrak" (2004, 2005, 2006 eta 2007)
 - Jarduketan memoria (2004, 2005, 2006 eta 2007)
 - Dokumentua: "Bizkaiko Lurralde Historikoko indarkeriaren biktimak diren emakumeen arreta juridiko, psikologiko, famili jarduketa espezializatuko eta harrerako baliabideak" (aribideko)

urtea), Foru Aldundiak kudeaturiko zein udalek eta mankomunitateek administraturiko zerbitzuak dakartzan txostena.

□ Emakumeen kontrako etxeko indarkeriari buruzko argitalpena. Bizkaiko Lurralde Historikoko ikerketa baten emaitzak, 2006.

□ Genero indarkeriaren kontrako jardunei, ekimenei eta esperientziei buruzko argitalpena, 2006.

□ Dokumentua: “Europako Batasuneko emakumeen kontrako indarkeriaren zifrak. 2006ko urria”.

- ↑ **Estekak:** Behatokiko erakundeen web orrialdetarako loturen erlazioa; beste erakunde batzuk; antzeko behatokiak; erakundeak, programak eta proiektuak.
- ↑ **Baliabideen mapa:** mapa multzo bat biltzen duen erakusketa grafiko-testuala, non Bizkaiko Lurralde Historikoko indarkeriaren biktimak diren emakumeen arreta juridiko, psikologikoko eta harrerako baliabideen eta berdintasunerako politika aktiboen inguruko gure informazioa azaltzen den.
- ↑ **Dokumentuen kudeatzailea:** udaleko berdintasun planak, udal protokoloak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia erkidego batzuetan eta estatu mailan aplikatu beharreko legeria biltzen dituen datu-basea.
- ↑ **Adierazleak:** “Lan-taldea” eta “Zifra” ataletan egituraturiko orrialdea.
- ↑ **Horietako lehenak,** Lan-taldeak, partaideen zerrenda (karguarekin eta jatorrizko erakundearekin) bileren ondoriozko dokumentazioa eta egutegia ditu. Zifren atalak, bestalde, “Bizkaiko Lurralde Historikoko indarkeriaren arretako zifrak” deritzon dokumentuko urteko edizioak aurkezten ditu.
- ↑ **Baliabideen mapa:** Bizkaiko genero indarkeriaren kontrako zerbitzuen, erakundeen eta antzeko erakundeen gida, Bizkaiko tokiko erakundeek aplikaturiko tresnen deskribapena, udalerrietako plangintzaren partikularrak (berdintasun programak, indarkeriaren kontrako programak, jarduketa protokoloak...). Tresna horren barruan, baliabideen bilatzailea azpiatala du, bilatzeko hiru posibilitate onartzen dituen aplikazioa hain zuzen.
- ↑ **Buletina:** web gunearen barne orri guztietatik -hasierakoa izan ezik— Behatokiaren komunikazio buletinean sar daiteke; izan ere, aldian-aldian agertzen den argitalpen elektronikoa da. Edozein orrialde

zabaltzean, zuzenean sar gaitzke azken argitalpenean; halaber, aurreko edizioak kontsultatzeko modua ematen du historiak.

- ↑ **Hizkuntza:** euskarazko bertsioa eta gaztelaniazko bertsioa txandakatzeko modua ematen du web orrian nabigatzean, eta alderantziz.
- ↑ **Harremanak:** Behatokiaren kokapena, telefonoa, faxa eta posta elektronikoa.
- ↑ **Postontzia:** Behatokiarekin posta elektronikoaren bidezko harremanak ahalbidetzen ditu.
- ↑ **Irisgarritasuna:** irisgarritasunaren arloko informazioa ematen du.
- ↑ **Web mapa:** Web gunearen mapa nabigagarrian sartzeko modua eman du.

BGIBren web orrialdearen bisita kopurua nabarmen handitu da 2005etik hona. 2007an¹, batez beste 9.245 bisita izan zituen hilean, eta 2006an (5.261 batez beste hilean) 2005etik (1.332 batez beste hilean) 3.928 bisita eta 2007an 2006rekiko 3.986 bisita.

Oinarrizko dokumentazioa, gomendioak, protokoloak eta bilketako tresnak biltzea

Hasi zenetik, Behatokiak etengabeko bilketa-lana egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan eta kanpoan ezarri diren dokumentuen, protokoloen, jarduketan eta neurrien gainean. Material garrantzitsuak Behatokiaren web gunean sartzan dira, eta plataformetatik daude eskuragarri: dokumentazioaren ordezko atala web gunea; Baliabideen Mapa, udalerriek garaturiko programako tresnetarako bidea ematen duena, guztientzat erreferentzia baliotsua izan daitezkeen tresnetarako hain zuzen; udal kudeatzailea, herri administrazioek emakumeen kontrako indarkeriaren eta berdintasunaren arloan eginiko planak, programak eta protokoloak dakartzana, baita emakumeen kontrako indarkeriaren eta berdintasunaren arloko lege corpusa ere.

¹ Eskuan ditugun azken datuak

1. ILDOA	
Behatokia abiaraztea eta funtzionamendu eremua	
INDARGUNEAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Esperientzia berritzailea. <input checked="" type="checkbox"/> Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso handia izatea proiektuan. <input checked="" type="checkbox"/> Inguruan abiarazitako ekimenekiko erlazioa, erakundeek eskainitako zerbitzuak ez bikoiztea eta zerbitzuak ezagutaraztea. <input checked="" type="checkbox"/> Informazioa eta komunikazioa eskatzeko gaituriko bidea. <input checked="" type="checkbox"/> Web orrian egindako bisitak urtero igotzea. 	
HOBETU BEHARREKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Erakundearen web korporatiboa eguneratzea.. 	
GOMENDIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Web orria aldatzeko eta eguneratzeko baimenerako barne prozesua bizkortzea. 	

2. ildo: Bizkaiko genero indarkeriaren arloko datuak identifikatzea, bilatzea eta biltzea

Ardatz honen helburu nagusia Bizkaian emakumeen kontrako indarkeriaren arloan jarduteko eskuragarri dauden baliabideei buruzko datuak eskuratzea da, baita baliabide horien arretarako jarduketan bolumenari buruzkoak ere. Horri esker, indarkeria horrek Bizkaian duen garrantzia eta erakundeak emandako erantzuna ezagutzeko modua dago.

Hauexek dira ardatza hau betetzeko aurreikusitako jarduerak:

1. Tokiko erakunde informazio-emaileen harremanetarako sare bat eratzea eta mantentzea.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko genero indarkeriari buruzko datuak bildu eta prozesatuko dituen aplikazio informatiko bat, diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea.
3. Genero indarkeria laguntzeko eremuetan dagoen informazioa biltzeko sistema bat diseinatzea eta aplikatzea.
4. Informazioa biltzeko prozesua aztertzea egon dauden sisteman bidez eta horretarako beren beregi sortutako sistemen bidez.
5. Informazioa biltzeko sistemak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

BURUTURIKO EGINTZAK:

Udaleko harremanetarako sarea eratzea eta mantentzea

Gizarte zerbitzuen sarearen egituraren konplexutasuna dela-eta, laneko ildo horretan 2004tik hona buruturiko ekintzetako bat Bizkaiko tokiko erakundeekiko harremanetarako sarea eratzea eta mantentzea da; izan ere, gizarte zerbitzuen sarea erakunde kopuru batekin dago osatuta, eta horietako bakoitza informazio iturri bihurtzen da. Hauxe da xedea: udalerrri edota mankomunitate bakoitzean harreman gakoak identifikatzea, ezartzea eta mantentzea, halako moldez non Behatokiak datuak eta harreman onak izango baititu informazioaren kudeaketan. Soilik sare horren bidez lortu eta egin daiteke Bizkaiko biktimei eskainitako gizarte arreta agerrarazteko informazioa.

Gizarte langileek, gizarte zerbitzuetako koordinatzaileek, berdintasuneko agenteek eta antzeko profilek osatzen dute sarea.

Ekintza hori burutzeko, hasieran **presentziazko hainbat bilera** egin ziren Bizkaiko udaletako eta mankomunitateetako pertsonal teknikoarekin edo politikoarekin, baita elkarteetako ordezkariekin ere. Populazio bolumenaren eta biztanle-guneen hiri eta landa izaeraren arabera ezarri da jardueraren plangintza, eta kontaktaturiko erakundeen prestutasunaren arabera, topaketak azkenean ondoko lurralde eremu hauetan lan egiten duten profesionalekin:

Udalerrriak: Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Ermua, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Sestao;

Mankomunitateak: Arratia, Busturialdea, Enkartzioak, Lea-Artibai, Txorierri.

Topaketa horiek egin ziren, lurralde eremu egokietan emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek eman dioten erantzunaren gakoei buruzko informazioa lortzeko, baita erakundeetako solaskideekiko kontaktuak finkatzeko ere. Gainera, bilera horietan, Behatokia eta haren helburuak aurkeztu ziren, eta udalerrri edo mankomunitateetan izandako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datuak eskuratzeko intereseko puntuak finkatu ziren.

Telefonoak eta posta elektronikoak erraztu egin dute informazio trukaketa ezarritako kontaktuetan.

Sare horri eusteari begira, Behatokiaren informazioko buletin elektronikoa bat editatzen hasi da, eta horren helburuen artean, hauexek daude: Behatokiak informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen funtzioa indartzea, erakunde informazio-emaileekiko *feed-back-a* bultzatuz” eta “ondorioz, udalerriekin eta beste erakunde eta administrazio batzuekiko harremanetarako sarea indartzea”.

Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan lan egiten duten erakundeekiko eta pertsonetikiko informazio-fluxua ezartzearen eta mantentzearen garrantzia eta beharra dela-eta, oinarrizko elementua izango da Behatokiaren planteamenduan, eta ildo horretatik doa BGIB Buletinean 2005eko uztailaren argitaraturiko alea ere; izan ere, fluxu horrek lagundu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoan diren indarkeria egoeren jarraipena egitea ahalbidetzen duen informazio sistema eratzen.

Lurraldeko hainbat eremutako eragileekin izandako hasierako topaketez eta buletina diseinatzeaz eta abiarazteaz gain, honako hauek izan ditu sarea mantentzeko metodologiak:

- Behatokiaren eta Bizkaiko tokiko erakundeen arteko alde biko komunikazio-fluxu etengabea kudeatzea.
- Informazio-emaileen sarera bidaltzea arretari buruzko zifren dossierrak, eta Bizkaian baliabideak izatea, haien ekarpenen ondorioz.
- Emakumearen kontrako indarkeriaren arloko laneko tresna eta informazio interesgarri guztiak jartzea erakundearen web korporatiboan eta horiek ezagutaraztea.

Urteko informazioa biltzeko prozesuen ondoren Adierazleen Lan-taldeak egiten dituen balorazio txostenetan, erakunde informazio-emaileekiko lankidetzaren maila handia islatzen da, eta hala ikus daiteke ere Behatokia sortu zenetik lurralde

mailan emandako datuen osotasuna, bai indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretarako erakundeek abiarazitako baliabideei dagokienez, bai baliabide horiek lagundutako emakumeen kopuruari dagokionez.

Bizkaiko Lurralde Historikoko genero indarkeriako kasuei buruzko datuak bildu eta prozesatuko dituen aplikazio informatiko bat diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea eta horretarako ezarritako baliabideak.

Datu-baseko prototipo baten zirriborroa egiteko proba-banku gisa, beharrezko tresna informatikoen behin-behineko diseinua eta egokitzapena egin zen, eta horri esker, Bizkaiko Lurralde Historikoko biktimentzako baliabideei eta zerbitzuei buruzko **informazioa** bildu ahal izan da, non erakundeak, agente formalak eta informalak, jarduteko prozedurak eta koordinazio sistemak identifikatzen ziren. Behatokiaren jardueren 2004ko memoriak dakarrenez, sailkapenerako matrize bat egin zen zazpi kategorian nagusiren eta hamahiru azpikategoriaren arabera:

- 1. kategoria. Udala. Azpikategoria: Udala.
- 2. kategoria. Gizartekoa. Azpikategoriak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak/ Berdintasun Arloa/ Emakumearentzako Arreta Zentroa.
- 3. kategoria. Poliziakoa. Azpikategoriak: Udaltzaingoa/ Ertzaintza.
- 4. kategoria. Osasunekoa. Azpikategoriak: Oinarrizko Arreta/ Larrialdiak/ Buruko osasuna.
- 5. kategoria. Judiziala. Azpikategoria: Epaitegia.
- 6. kategoria. Beste batzuk. Azpikategoria: genero indarkeriaren arloko elkarteak.
- 7. kategoria. Berdintasunerako tresnak. Azpikategoria: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana/ Toki mailan koordinatuta jarduteko protokoloa.

Aldi berean, zerbitzuek izandako arreten bolumenari buruzko datuak dakartzan beste aplikazio bat mantendu zen.

2007an, informazioa kudeatzeko sistema integrala den -informazioa biltzea, erregistratzea eta tratatzea- datu-base baten diseinua abiarazi zen, eta horri esker, etengabeko elkar eragitea dago Behatokiaren eta erakunde informazio-emaileen artean. Hala, galdetegi digital pertsonalizatua bidali ahal izan zaie erakunde horiei, aurreko ekitaldietan Behatokiari emandako datuak erkatzeko eta informazioa aldatzeko edota ekartzeko aukera dago.

Banako fitxan grabaturiko datuak zerbitzari seguruan gordetzen dira, eta sistemak datuak itzultzeko modua ematen du hainbat formatutan, tratamendurako eta azterketarako egokitua, zeren eta zerrendak eta estatistikak sor baitaitezke *back office* izeneko tresna baten bidez. Fitxa informatizatuan sartutako datuetatik elikatzen da sistema informatikoa, eta horri esker, erakundeek emandako datuak hobeto erabil daitezke.

Genero indarkerian arreta ematearen arloan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko sistema bat diseinatzea eta aplikatzea.

Informazioa biltzeko prozesuari dagokionez, bi egoera desberdin aipatu behar dira: informazio homogeneoa eta bateratua duten eremuetakoa (epaileen eta polizien eremua), baina egoera hori ez dator bat gizarte eremuarekin, non 121 erakunde solaskide bateratzen diren. Behatokiak berak eremu horretako informazioa biltzeko eta bateratzeko lana bereganatu behar du.

2004-2008ko epealdian, datuak biltzeko sistema hobetzearekin batera, Behatokiak aurrera egin du **datuak biltzeko tresnen diseinuan**, eta bi sistema gauzatzearekin lotutako bi etapa bereizten dira:

- Lehen etapan, galdetegi orokorrak diseinatzen eta erabiltzen dira datuak biltzeko, prozesuan parte hartu duten erakunde guztiei posta elektronikoz emandakoak;
- Etapa berri bat hasten da arestian esandako informazioa kudeatzeko sistema integrala abiarazita, orrialde anitzeko zenbait galdetegi zehazteko modua ematen duena, eta orri bakoitzak 75 galderako zerrenda bat du (batzuk aukerakoak aurreko erantzunen arabera). Hala, Behatokiari aurreko ekitaldietan emandako datuak erkatu eta alda ditzake udalerrri edo mankomunitate bakoitzak, baita jarduerari buruzko informazio gehiago eman ere.

Informazio-eskaeren definizioari dagokionez, indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako zerbitzuak eskuragarri izatearen, horien ezaugarrien eta aurreko urtean izandako arreta kopuruaren inguruko sei bloke tematikotan dago egituratuta formularioa:

- Tokiko erakundearen harremanetarako datuak.
- Gizarte eta berdintasuneko baliabideak: oinarrizko gizarte zerbitzuak, Emakumearen edota Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako plana, berdintasuneko teknikaria, Berdintasun Kontseilua, ekintza koordinaturako protokoloa, BERDINSAREA.
- Aholkularitza juridikoko baliabideak.
- Arreta psikologikoko baliabideak.
- Harrerako baliabideak.
- Beste baliabide batzuk: familia batzeko gunea, telefono bidezko arreta zerbitzua, etab.

Informazioa biltzeko prozesuaren jarraipena indartu egin da fitxa informatizatuaren bidez, baita hura betetzeko etengabeko laguntzaren bidez ere; hartara, telefonoa eta posta elektronikoa erabili da (euskaraz eta gaztelaniaz). Gainera, EUDEL-en laguntzaz (Euskal Udalerrien Elkarte) datuak biltzeko tresna eta lorturiko dokumentuak bidali zitzaizkien Bizkaiko udal eta mankomunitate guztiei, emandako informazioa oinarri hartuta.

Datuak biltzeko sistema hori abiarazita, proposamenik onenak sartzera bideratzen da Behatokiaren xedea, aurreko urtean datuak biltzeko prozesua eta informazio-emaileen sarean hobekuntzak egiteko bildutako proposamena oinarri hartuta. Halaxe jardun da orain arte.

Informazioa biltzeko prozesua aztertzea egon dauden sistemen bidez eta horretarako berriazko sortutako sistemen bidez.

Honako hauek ezagutu nahian hasi zen lanean Lan-taldea: tokiko erakundeetan informazioa biltzeko sistemaren ezaugarriak, egindako arretari buruzko datuak

eskuragarri dauden eta datu horiek biltzeko euskarriak. Bizkaiko udaletako eta mankomunitateetako gizarte eta berdintasun zerbitzuetako arloetako arduradunen lagin batekin burutu da jarduna. Harreman horietan lorturiko emaitzak berretsi egingo dira Behatokiak datuak biltzeko prozesuari ekiten dion neurrian, eta gizarte zerbitzuen eremuan egiaztatu denez, ez dago informaziorik erregistratuta edo ez dago kasuak zenbatzeko irizpide komunik, eta horrek galarazi egiten du datu partzialak batzea eta egoerari buruzko ikuspegi orokorra lortzea. Ondorio horiek ikusita, lor daitezkeen datuen arabera eta datuak biltzeko moduaren arabera ezarritako Behatokiaren datu-bilketa.

Ildo horretan, datuak gizarte eremuan -udalerrriak eta mankomunitateak- biltzeko prozesuko zailtasunei buruzko txostenak egin zituen Behatokiak 2006an eta 2007an, prozesuaren indarguneak, puntu ahulak, aukerak eta arriskuak dakartzatenak. Hori oinarri hartuta, datuak lortzean hobekuntza kuantitatiboa eta kualitatiboa izateko proposamenak egin dira.

Informazioa biltzeko sistemak bateratzeari begira, gizarte zerbitzuaren eremuan informazioa biltzeko fitxa bat egin zen 2005ean Lan-taldearen baitan. Aldi berean izan zen ekimen hori eta Erakunde Arteko Talde Teknikoaren Gizarte Zerbitzuen Azpibatzerdeak ondoko hau egiteko prozesua: "Informazioa biltzeko ereduak etxeko tratu txarren kasuetarako gizarte zerbitzuen eremuan", etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko Erakunde Arteko Akordioa Jarraitzeko Batzordeak onetsitako dokumentua eta EAEn nahitaez erabili beharrekoa. Hori dela-eta, hasitako prozesuari jarraipenik ez ematea erabaki zen, baita tresna berri horren dibulgazio plataforma gisa jardun ere, Behatokiaren web gunean sartzea erraztuz eta horren erabilera sustatuz BGIB Buletinaren eta erakundearen beraren jarduketan bidez.

Informazioa biltzeko sistemak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

Aurrekoarekin jarraituz, datuak biltzearen inguruan eginiko gogoeta prozesuen ondorioz eta datuok lortzeko zailtasunak ezagututa -gizarte eremuan-, horren gaineko bere balorazioak agerrarazi ditu Adierazleen Lan-taldeak 2008an egindako dokumentuan; izan ere, erakundeek Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan duten jarduna hobetzeko

gomendioak eta proposamenak islatzen dira bertan. Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak lortzeko modua hobetzeko proposamenen gaineko atal bat du dokumentu horrek, eta ondokoen inguruan egituratzen dira:

- Datuak biltzea erakundeetan
- BGIBk egin beharreko gizarte datuak eskuratzea lurralde eremuan
- BGIBk egin beharreko beste datu batzuk eskuratzea lurralde eremuan

ARDATZ HAU BETEARAZTEKO ERABILITAKO ESTRATEGIAK

Hauexek izan dira proiektuaren ardatz honetan ekintzak burutzeko erabilitako estrategiak:

- *Informazio estrategiak.* Harremanetarako sarea ezarrita, Bizkaiko tokiko erakundeek emakumeen kontrako indarkeriaren eta berdintasunaren inguruan eginiko jarduketei buruzko informazio garrantzitsua lortu eta prozesatu da, baita arrazoi beragatik udaleko eremuan lagundutako emakumeei buruzkoa ere.
- *Sentsibilizazio estrategiak.* Emakumeen kontrako indarkeriaren arazoa islatzeko eta horren tamaina ezartzeko datuak izan beharraz jabetzea da Behatokiak planteatu dituen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Hori dela-eta, BGIB Buletinak eskaintzen duen komunikazio plataforma erabili da helburu horretarako, eta oro har, Behatokiaren jarduerak ezagutaraziz, erasoak jasan duten emakumeei laguntzeko inplikaturiko pertsonen ezagutza gogoetatsua sustatu nahi da.
- *Tresnak egikaritzea.* Informazioa kudeatzeko sistema integrala eratzea hiru arlotan: informazioa biltzea, kudeatzea eta tratatzea. Informazioa biltzeko fitxa elektronikoa sortzea.
- *Komunikazio estrategiak.* Behatokiaren postontzi elektronikoaren bidez, harekin harremanetan jarri diren pertsonen eskaerei erantzuna ematea, dela zuzeneko arretaren bidez, dela Erakunde egokiei bideratuta.

- *Aldaketa eta hobekuntza bultzatzeko estrategiak.* Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak biltzean eredu homogeneoak aukeratzea bultzatzea.

2. ILDOA Bizkaiko genero indarkeriaren arloko datuak identifikatzea, bilatzea eta biltzea	
INDARGUNEAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Adierazleen lan-taldea finkatuta eta oso motibatuta egotea, administrazioaren eta elkarteen hiru mailetako ordezkariekin. <input checked="" type="checkbox"/> Lan-taldea argi eta garbi dago bideratuta tresnak eta datuak biltzeko prozesuak hobetzera. <input checked="" type="checkbox"/> Informazioa biltzeko, erregistratzeko eta tratatzeko sistema integrala. <input checked="" type="checkbox"/> Gizarte eremuan datuak biltzeko prozesuari buruzko DAFO azterketa (Tokiko erakundeak). <input checked="" type="checkbox"/> Informazioa biltzeko hobekuntzarako proposamenak egitea eta abian jartzea DAFO oinarri hartuta. <input checked="" type="checkbox"/> BGIB Buletina egitea udal harremanetarako sareko harremanei eusteko. <input checked="" type="checkbox"/> Lurraldeko tokiko erakundeek erantzun maila dute Behatokiaren eskariei dagokienez. <input checked="" type="checkbox"/> Datuak biltzerakoan bilketa-euskarrietan aldagaiak sartzeari pixkanaka. <input checked="" type="checkbox"/> Inguruan abiarazitako ekimenekiko erlazioa, beste erakunde batzuek eskainitako zerbitzuak ez bikoiztea eta ekimenak ezagutaraztea. 	
HOBETU BEHARREKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Euskarara itzultzea datuak biltzeko fitxa. <input checked="" type="checkbox"/> Udal harremanetarako sarea informazio-bilketan inplikatzeari. 	
GOMENDIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak erregistratzearen garrantziaz jabetu beharra indartzea bereziki gizarte zerbitzuen arloan, Behatokiaren proiektuaren emaitzak indartzeko eta biderkatzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Helburuen ezagutza eta BGIBk udal harremanetarako sarearen artean egindako lana indartzea. 	

3. ildoak: datu horiek kudeatzea, tratatzea eta ikusaraztea informazio bihur daitezen

Ardatz honen xede nagusia lorturiko datuak kudeatzea eta tratatzea da, Bizkaiko emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazioa erakusteko azterlan, ikusarazten, grafiko eta adierazleen bidez.

Hauexek dira ardatz honekin betetzeko aurreikusitako jarduerak:

1. Adierazleak diseinatzea eta epealdietako zifrak dakartzaten txostenak ekoiztea.
2. Euskarri informatikoak diseinatzea eta eguneratzea, Bizkaiko indarkeriaren biktimentzako baliabideak ezagutzeko.
3. Hainbat sistemaren bidez bildutako datuak aztertzea, helburu horretarako berariaz sortuak.
4. Dokumentuen eta komunikazioen euskarriak diseinatzea eta mantentzea.

EGINIKO JARDUERAK:

Adierazleen diseinua

Adierazleen Lan-taldearen baitan, adierazleen zenbait proposamen landu ziren, Estatu eta Europa mailan dauden proposamenak aztertu ondoren. Azkenean, Erakunde Arteko Talde Teknikoaren Gizarte Zerbitzuen Azpibatzordeak eginiko "Informazioa biltzeko eredu..." izeneko oinarri hartuta adierazle-sorta bat sortzea erabaki zen. Proposamen hori noiz aplikatuko zain dago eredu horrekiko egokitzapen handiagoa lortzen denean erakundeen egungo datu-bilketan.

Epealdietako zifrak dakartzaten txostenak ekoiztea

Adierazleen Talde-lanaren lehen bileran ezarritako erabakiaren ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen kontrako indarkerian arreta emateari buruzko zifrak dituzten urteko txostenak argitaratu ziren. Talde horretan dauden erakundeek arlo horretan ekitaldi bakoitzean emandako zerbitzuen eta arretaren gainean egindako ekarpenak ditu oinarri dokumentu horrek, eta Bizkairako datuak arakatzeko modu espezifikoak ematen dira. Gainera, Bizkaian dauden gizarte zerbitzuetako udal edo mankomunitateen titularitateko indarkeriaren arloko zerbitzuetako datuak lortu dira, baita Behatokian zuzenean ez dauden beste erakunde batzuen datuak ere. Ez daude erakundean bertan, baina haien informazioa ezinbestekoa da indarkeriaren hurbilketa integrala bilatzeko.

Ondorioz, Bizkaiko daturik garrantzitsuenak informazioko hiru bloke handitan taldekatuta dakartzan txosten bat sortu da; izan ere, emakumeen kontrako indarkeriaren arretan partaide diren erakundeen jarduketaren ondoriozkoak dira:

- Gizarte babesaren eremua: Harreraren eremuetan (larrialdi zerbitzua eta egonaldi ertain eta luzeko zentroak) indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arretari buruzko informazioa ematen du, baita aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa, famili jarduketa espezializatua, famili topa-gunea, etxebizitza eta telefono bidezko arreta zerbitzua ere.
- Poliziaren eremua: Ertzaintzak oro har eta udalerrri edota mankomunitate bakoitzarekin Bizkaiko Lurralde Historikoan ezagutzen dituen delituei buruzko informazioa zehazten du, emakumeen kontrako indarkeriari buruzkoa.
- Epaileen eremua: auzi judizialei buruzko datuak ematen ditu (etxeko indarkeria); biktimen arretari buruzko datuak; eta abokatuaren laguntzari buruzko datuak (Ofiziozko txanda).

Txostena egiteko datuak ematen dituzte: Gizarte Ekintza Saila (BFA); Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrriak eta mankomunitateak; Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila (Eusko Jaurlaritza); Herrizaingo Saila (Eusko Jaurlaritza); Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Eusko Jaurlaritza); Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Eusko Jaurlaritza); Lege Medikuntzako Euskal Erakundea (Justizia, Lan eta Gizarte

Segurantzaren Saila, Eusko Jaurlaritzaren); Laguntza juridikoko zerbitzua eta ofiziozko txanda etxeko indarkeriaren edota sexu erasoaren biktimak direnentzat (Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Elkargoa).

2004, 2005, 2006 eta 2007 urteetako jarduerari dagozkion txostenak web gunean daude.

Bizkaiko Lurralde Historikoko etxeko eta familiako indarkeriaren eremuko zerbitzuen mapa

2005ean, Baliabideen Mapa bat argitaratu zen Behatokiaren web gunean, Bizkaian etxeko indarkeria jasaten duten emakumeen arretarako dauden baliabideei buruzko informazio zehatza lortzea ahalbidetzen duen tresna. Horri esker, indarkeria kasuetan arretarako baliabideak ikusarazi, talde gisa hartu eta zehaztu egin daiteke, arretaren prozesuan partaide diren erakundeetan sartzeko erreferentziak bideratuz eta ezagutaraziz eta, beraz, indarkeriaren kasuetako arretarekin lotutako kudeaketa sistema bat eratuz, arlo horretan jarduerak egiten dituzten erakundeek laguntza emateko, baita halako egoeran dauden pertsonen laguntzeko ere.

Indarkeriako egoeretako arretan partaide diren erakundeekin harremanak izatea ahalbidetu duen jardunaren emaitza da mapa, eta arestian esandakoaz gain, udalerriek landu dituzten eta beste batzuentzat erreferentzia baliagarria izan daitezkeen planen eta programei buruzko informazio garrantzitsua biltzeko modua ematen du; ezaguera eta esperientzia teknikoak partekatzea (planak, protokoloak); eta baliabide gutxi dituzten inguruetan arreta bideratzeko baliabideen edota egituren inguruan dauden hutsuneak ikusteko oinarriko ildo bat izatea.

Baliabideen Mapa prozesu ireki eta jarraituaren barruan kokatzen da, eta hura argitaratzen denetik unetik aurrera, indarkeriako kasuetako arretarako Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden baliabideei buruzko plataformari eusten dion informazioa mantentzea eta handitzea du xede.

Foru, udal eta mankomunitate baliabideen gida: aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa, famili jarduketa espezializatua eta harrera.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak, urtero, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko udalerriek eta mankomunitateek tratu txarra jasaten duten emakumeei laguntzeko dituzten zerbitzuen eskaintza katalogatzen duen dossierra argitaratzen du, "Indarkeria jasaten duten emakumeen arreta juridikoa, arreta psikologikoa, famili jarduketa espezializatua eta harrera: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru, udal eta mankomunitateen baliabideak".

Funtsezko pertsonen solaskidetza ematen duen udaleko harremanetarako sareari esker biltzen da informazio hori, datuak tratatu baino lehen, eta azken dokumentuan agerrarazten dira; izan ere, eskaturiko datuen emateko ardura dute pertsona horiek.

Dokumentuaren egiturari eta edukiei dagokienez, lau atal tematiko ditu:

- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Arreta psikologikoko baliabideak
- Famili jarduketa espezializatuko baliabideak
- Harrerako baliabideak

Horietako bakoitza, aldi berean, bi zatitan banatzen da, baliabidearen titularitatearen arabera: Bizkaiko Foru Aldundia; eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta udalerriak.

Aholkularitza juridiko, arreta psikologikoko eta famili jarduketa espezializatuaren baliabideetan, sailkapen honen arabera banatzen da informazioa:

- Kudeaketa mota: zuzeneko edota zeharkakoa
- Arretako eguna eta ordutegia
- Arreta orduak hilean
- Aurreko urtean tratu txarrengandik arreta jaso duten emakumeen kopurua.

Gainera, aholkularitza juridikoaren eta arreta psikologikoaren kasuan, 2008ko dossierrak lurralde eremu bakoitzeko baliabideen deskribapen bat dakar, programaren helburuak eta hartzaileak zehaztuta.

Aldi berean, hauexek biltzen ditu harrerako baliabideen informazio-fitxak:

- Baliabide eskuragarrien kopurua: pisuak / plazak.

- Pisto mota: aldi baterako harrera/premiazko harrera.
- Zerbitzuaren kudeaketa mota: zuzena/zeharkakoa.
- Babes edota laguntza programa
- Pisuari atxikitako pertsonala
- Aurreko urtean hartutako pertsonen kopurua: emakumeak/adinekoak.

Katalogoa osatzeko, laburpeneko materiala eta honako dokumentu-eranskin hau daude: "Emakumeen kontrako indarkeria. Proposamen terminologikoak", Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeen arretarako erakunde arteko akordioaren jarraipena egiteko batzordeak adostua.

Bildutako datuen azterketa: baliabideen atlasa

Behatokiak, 2006an, tresna berria egin zuen, 2007an argitaratua: Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Baliabideen Mapa.

Atlasaren xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeek genero indarkeriaren biktimen beharrei ematen dieten erantzunaren zabalkundea eta izaera ikusaraztea, berdintasuneko politika aktiboei eta baliabide espezializatuei buruzko mapa tematikoen multzo baten bidez.

Atlasak zonaldean dauden zerbitzuak banaka aipatzen dituzenez eta deskribatzen dituzenez, laneko tresna baliagarria da herri administrazioentzat eta arazo hori duten emakumeei arreta ematen dieten beste erakunde batzuentzat.

Atlasa osatzen duten mapen azterketari esker, arretako hutsuneak eta defizita identifika daitezke, baliabide egokirik eza dela-eta arriskuan dauden emakumeak dauden zonaldeak identifikatu, zonaldeak edo zerbitzuak lehenetsi baliabide berriak esleitzean, etab.

Hauexek biltzen ditu mapak:

□ Ingurune grafiko bat, bost ataletan banatua (planak eta programak, koordinazioa, harrera, arreta psikologikoa eta aholkularitza juridikoa), hamaika mapa dituena. Mapa horretan, lurralde zuzkidura irudikatzen da honako hauei dagokienez:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta programak, edizioaren arabera
2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta programak, onespren urtearen arabera
3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta programak, pertsona tekniko espezializatuaren arabera
4. Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko eta eskualdeko protokoloak
5. BERDINSAREan dauden Bizkaiko udalerriak
6. Bizkaiko tratu txarren biktimak diren emakumeak hartzeko baliabideak
7. Bizkaiko tratu txarren biktimak diren emakumek hartzeko baliabideak, sortu zireneko urtearen arabera
8. Bizkaiko arreta psikologikoko zerbitzuak
9. Bizkaiko arreta psikologiko zerbitzua, jarduerak hasi ziren urtearen arabera
10. Bizkaiko aholkularitza juridikoko zerbitzuak
11. Bizkaiko aholkularitza juridikoko zerbitzuak jarduera hasi ziren urtearen arabera.

□ Berdintasunerako politika aktiboen ezarpen-mailari buruzko dokumentu azterketa eta genero indarkeriaren aurreko arretarako baliabide espezifikoen existentzia eta funtzionamendua.

□ Lurraldearen udalerrri guztien zerrenda, populazio kopuruaren eta baliabide espezifikoen titularitatea.

Azterlanak eta txostenak

Arestian aipaturiko txostenez eta azterlanez gain, hauexek egin dira:

□ Genero indarkeriaren kontrako jardunen, ekimenen eta esperientzien eskuliburua.

2006ko irailean, dossier hau argitaratu zen Behatokiaren web gunean: "Genero indarkeriaren kontrako jardunen, ekimenen eta esperientzien eskuliburua", Euskal Autonomia Erkidegoko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokarekin lotutako beste administrazio, erakunde eta elkarte batzuen hainbat mailatatik (estatukoa, forukoa, probintziakoa, tokikoa) garaturiko hainbat neurri biltzen dituena.

□ Europako Batasunaren emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko zifrak. 2006ko irailean, Europako Batasuneko herrialdeetako tratu txarren biktimak diren emakumeei buruzko datuak biltzea erabaki zuen Adierazleen Lan-taldeak. Ekintza horren ondorioz, Europako Batasuneko emakumeen kontrako indarkeriaren zifrei eta datu ofizialen iturriei buruzko txosten bat egin da; izan ere, Behatokiaren web gunean argitaratu da txostena.

BGIB Buletina sortzea eta ezagutaraztea

Behatokiaren dibulgazio tresna gisa baliozkotuta 2005eko abenduaren 21eko osoko bilkuran, urte horretako uztailen tresna horren ale pilotu bat egin zen metodologia, banaketa-lagina eta ekimenaren funtzionaltasuna probatu ahal izateko. Ale pilotu horretaz gain, hamaika gehiago argitaratu dira 2004-2008ko epealdian.

Behatokiaren laneko planaren barruan, sentsibilizazio eta informazio lanen eta dauden mekanismoak eta prozesuak bultzatzearen eta indartzearen barruan sartzen da BGIB Buletina.

Hala egiten da emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskuragarri dagoen informazioa aldizka komunikatzeko eta lan tresnak ezagutarazteko, eta honako hauetarako baliozkotasuna duela irizten zaio:

□ Behatokiak informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen funtzioa indartzea tokiko erakundeekiko eta beste erakunde informazio-emaileekiko *feed-back*-a bultzatzean.

- Ondorioz, udalerrri eta mankomunitateetako eta beste erakunde eta administrazioetako harremanetarako sarea finkatzea.
- Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazioa ematea arlo horretan diharduten profesionali.
- Behatokiaren jardueraren berri ematea eta jardueraren emaitzak ezagutaraztea.
- Beste erakunde batzuek zuzendutako baterako zabalkunderako plataforma izatea.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arazoa ageriago uztea.

Buletina web gunean argitaratzen da, historiko batean gordetzen da; eta gainera, posta elektronikoko bidez banatzen da horretarako sortutako zerrenda batean. Zerrenda horretan, Behatokiko osoko bilkurako eta lan-taldeko kideez gain, Bizkaiko tokiko erakundeen pertsonal politikoa eta teknikoa, indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretan inplikaturiko elkarteak, Behatokiarekin solaskidetza duten profesionalak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordeko kideak, etab. daude...

Euskaraz eta gaztelaniaz garaturiko *Newsletter* formatuarekin, bost atal ditu buletinak:

- Aurkezpena: buletinean sartzeko atala.
- Gaiak: indarkeriaren gaia hainbat eremutan jorratzeko atala.
- Behatokia: BGIBren jarduera biltzen duen atala: bilerak, datuen miaketa, produktuak, eguneratzeak...
- Tresnak: emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko tresnak ezagutarazteko atala (planak, programak, protokoloak, neurri juridikoak, datuak biltzeko tresnak diseinatzea...).
- Oharra: itxierako atala, argitalpenak, dokumentu berrikuntzak, azterlanak, ikastaroak, jardun onak...

Argitaraturiko aleetan, honako hauen kolaborazioa izan da elkarriketen bidez: Juan M.^a Aburto jauna (Behatokiko presidentea eta Gizarte Ekintzako foru diputatua); Miren Dobaran (EUDELeke Emakume eta Euskara Arloko

arduraduna); Maite Erro andrea (EHAEko Berdintasunaren Defendatzailea); Irune Fernandez andrea (Bilboko emakumearenganako indarkeriaren epaitegiko epailea); Marta Dolado andrea (AUZOLAN moduluko abokatua); Inmaculada de Miguel andrea (Justizia administrazioarekiko erlazioetako zuzendaria); Carlos Cubero jauna (Lege Medikuntzako Euskal Erakunde zuzendaria); Iñigo de Iturrate jauna (Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Berdintasun eta Eskubideen zuzendaria); Sonia Duran eta Leire Combo andreak (arreta psikologikoko taldea: ARGITAN); Elena Ayarza andrea (Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko zuzendaria); M.^a Angeles Montes andrea (EHAEko fiskal gorena).

Dokumentu-kudeatzailea sortzea eta mantentzea

2006. urtean, datu-base berria argitaratu zen web gunean, lau dokumentu motaren arabera katalogaturiko dokumentu interesgarriak biltzen dituen dokumentu-kudeatzailea hain zuzen ere:

- Udaletako eta mankomunitateetako berdintasun planak
- Udaletako eta mankomunitateetako indarkeriaren kontrako programak
- Udalen eta mankomunitateen ekintza koordinatuko protokoloak
- Legeria

ISBD arauak ezarritako arloen azterketa jarraitzen da dokumentuak deskribatzeko (International Standard Bibliographic Description).

Bi bilaketa modalitate ematen ditu aplikazio informatikoak, biltzaile sinplearen eta biltzaile aurreratuaren bidez. Bilaketaren ondoren, fitxa teknikoa eta idazkia ikustea lortzen da, betiere hori badago.

ARDATZ HAU BETEARAZTEKO ERABILITAKO ESTRATEGIAK

Hauexek izan dira lan-ildo hau burutzeko erabilitako estrategiak:

- *Informazio estrategiak.* Funtsean, egindako jarduera guztietan burutu dira. Txostenak egin izana eta produktuak eguneratu izana jakinarazi zaie emakume biktimen arretarako jarduerari buruzko datuak ematen dituzten erakundeei. Aldian-aldian eguneratu da web gunea, lege tresnak, azterlanak, tresna praktikoak eta dokumentazio interesgarria etengabe ezagutarazteko puntu zentralizatu gisa. Zehazkiago, etengabe eguneratu da Baliabideen Mapa Bizkaiko emakumeen kontrako indarkeriaren arloan.
- *Sentsibilizazio estrategiak.* BGIBren buletina editatzea eta askotariko zerrenda bati banatzea: gizarte zerbitzuetako profesionalei, berdintasun arloei, politikariei, besteak beste.
- *Materiala egitea.* Zifren dossierra eta baliabideen katalogoa egitea urtero. Baliabideen datu-baseak eta dokumentuak egitea. Plataforma grafikoa egitea.
- *Komunikazio estrategiak.* Postontzi elektronikoari eutsiko zaio, eta hainbat arlotako informazio-eskaerei emango zaie erantzuna.

3. ILDOA Datu horiek kudeatzea, lantzea eta ikusaraztea informazio bihur daitezzen
INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> BGIBk sortutako genero indarkeriaren arloko produktuen aniztasuna. <input checked="" type="checkbox"/> Zabalkunde plataforma genero indarkeriari buruzko legeriaren, araudiaren eta dokumentazioaren biltegia den aldetik. <input checked="" type="checkbox"/> Eskainitako produktuak jarduketa eremuei egokitzea. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBk eskainitako genero indarkeriaren arloko produktuen aniztasuna.
HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Erakunde partaideen urteko datuak eskuratzea hurrengo urteko lehen seihilekoan.
GOMENDIOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Zifren dokumentua argitaratzea urteko lehen seihilekoan. <input checked="" type="checkbox"/> Eginiko lanaren zabalkunde handitzea. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren posizioa finkatzea eta indartzea emakumeen kontrako etxeko indarkeria aztertzearen arloan Bizkaiko Lurralde Historikoan erreferentziako erakunde gisa.

4. ildoak: genero indarkeriaren arazorako erantzunak kudeatzeko erakunde arduradunetako ordezkariekin aztertzea, eztabaidatzea eta erkatzea informazio hori, ezaguera bihur dadin

Ardatz honen helburu nagusia Behatokiaren bigarren helburuari erantzuna ematea da: herri erakundeek genero indarkeriaren eremuan eskaintzen diren zerbitzuak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

Hauexek dira ardatz hau betetzeko aurreikusitako jarduerak:

1. Gomendioak eta proposamenak egitea Bizkaiko genero indarkeriaren arloan eragina duten baliabideen eskaintzaren hobekuntza sustatzeko eta erakunde egokiei helaraztea.

EGINIKO JARDUERAK:

Gomendioak ematea

Behatokiaren 2008ko urtarrilaren 10eko osoko bilkurak dokumentu bat egiteko agindu zion Adierazleen Lan-taldeari, eta dokumentu horretan emakumeen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuen eskaintzen hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak bildu dira, hala Behatokia sortzeko dekretuan ezarritako 2. helburua betetzeko.

Behatokiaren osoko bilkuraren aginduaren ondorioz, gogoeta prozesua izan du lan-taldeak 2008an, eta azkenean, dokumentu² bat onetsi zen azaroaren 14an, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako eta arretarako erakundeen jardueraren inguruko hobekuntzarako hainbat proposamen biltzen dituena.

Gogoetarako bi arloren inguruan egituratu da lan-taldea:

- □ Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, eta oinarrizko prebentzioaren arloa izan da ardatza.
- Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta; hauexek bereizten dira:
 - indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako gizarte zerbitzuak hobetzea
 - emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak lortzeko modua hobetzea
 - profesionalak trebatzea emakumeen kontrako indarkeriaren arloan
 - erakundeen arteko koordinazioa

Ekintza hori burutzeko, **aldian-aldian egin dira lan-taldeko bilerak**, non baterako lana egiteko akordioak puntuak finkatu baitira (laneko metodologia, txostena egituratzen duten azterketako arloak zehaztea, edukien definizioa eta adostasuna). Posta elektronikoaren bidez, erakunde partaideen prozesuan parte hartzea erraztu da laneko bileretan izateko modurik egon ez denean.

Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan erakundeek eginiko jarduerari buruzko gogoetako jarduera nagusirako, ondoko hauek hartu dira erreferentziazat:

² Ebaluazio honen informazioa bildu den unean, dokumentu hau egiteko fasean zegoen; hortaz, kontsultaturiko pertsonak ez dute ezagutzen azken emaitza, hori egin duen lan-taldeak izan ezik. Talde ebaluatzaileak txostena idazteko azken fasean izan du dokumentu horren berri.

- Erakundeen jarduketak emakumeen kontrako indarkeriaren arloan egituraturiko araudia eta administrazio erabakiak.
- Bizkaian emakumeen kontrako indarkeriari buruzko hainbat iturrik sortutako informazioa, neurri handi batean BGIBk sortua.
- BGIBk urtero egiten duen informazio-bilketaren inguruko lanaren esperientzia bera.

ARDATZ HAU BETEARAZTEKO ERABILITAKO ESTRATEGIAK

Lan-ildo horretan jarduteko estrategia nagusia, oro har, Behatokiaren beraren izaeraren ondoriozko jarduera izan da, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta EAEn indarkeriaren arretan inplikaturiko eremuen topa-gune eta koordinazio-gunea den aldetik.

Berariaz, ondoko hauek izan dira ekintza burutzeko erabilitako estrategiak:

- Adierazleen lan-taldearen bilerak egitea, emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari buruzko gogoeta egiteko eta hori hobetzeko gomendio-sorta bat laburbiltzea.
- *Materialak egitea*. Laneko topaketa bakoitzerako materialak egitea; prozesuaren emaitza bilduko duen laburpen produktu bat eta azken dokumentua egitea.

4. ILDOA

Informazio hori genero indarkeriaren arazoari erantzuna ematea kudeatzeaz arduratzen diren erakundeetako ordezkariekin, ezaguera bihur daitezzen.

INDARGUNEAK

- Adierazleen Lan-taldeak gomendioak eta gogoetak egiteko lanaren intentsitatea handitzea bereganatzean hartutako konpromiso maila.

HOBETU BEHARREKOAK

- Beste arlo batzuetan eginiko lana hobeto ezagutzea, osasunaren eta hezkuntzaren arloetan adibidez.
- Justiziaren partaidetza indartzea, judikaturiko ordezkariak eta Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Elkargoa barne.

GOMENDIOAK

- Arlo horretan eragina duten edo lan egiten duten beste erakunde batzuk sartzea, gomendioen norainokoa handitzeko.
- Proposaturiko gomendioen arloak aintzat hartzeko moduaren jarraipena egitea.

BGIB-REN PARTAIDEENTZAKO GALDETEGIEN ERA KONTSULTEB BIDEZ EGINIKO EDUKIEN ETA EMAITZAREN AZTERKETA

Azterketa hori ez dago lotuta proiektuaren helburuekiko, **baizik eta ebaluazio galdetegietan sortutako hiru bloke handirekiko:**

- **Politikan, teknikan eta elkarteetan ordezkariak duten eta parte hartzen duten erakunde guztien partaidetza zabala eta kohesioa:** eginiko jarduera guztiak dira (formalak eta ez formalak) helburuak betetzen direla bermatzeko eta proiektuaren garapenik onena sustatzeko.
- **Datuak biltzeko prozesua hobetzea, horren garrantziaz jabeaztea herritarrek, tresna berriak sortzea, datuak biltzeko ereduak eta iraunkortasuna eta prozesuaren denboran finkatzea.** Sortutako egiturak indartzea eta mantentzea da kontua, garaturiko zenbait ekintzaren bidez, baita BGIBren **funtzioak** garatzeko laguntza ematen duten erakundeek edota pertsonak hartutako konpromisoa sustatzea ere, BGIBren helburuak lortzeko.
- **Indarkeriaren garrantzia eta hori ezagutzeko eta desagerrarazteko erakundeek duten konpromisoa ezagutaraztea herritar guztiei eta trebakuntza mezua ematea:** BGIBk lorturiko emaitzek epe laburrean izandako eragina.

Hauexek izan dira azterketa hori egiteko kontsultaturiko pertsonak: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familia Zerbitzuari atxikiriko Behatokiko idazkaria, Adierazleen Lan-taldean eta osoko bilkuran parte hartzen duten pertsonak, Udal Harremanetarako Sareko erakunde partaideak eta ebaluazioaren aldiaren web orriko bisitariak. Horretarako, talde bakoitzarentzako galdetegi espezifiko bat erabili da, eta galdetegiaren emaitzak aurkeztuko dira orain.

BGIB-REN PARTAIDEENTZAKO GALDETEGIEN ETA KONTSULTEN BIDEZ EGINIKO EDUKIEN ETA EMAITZEN AZTERKETA

1- ADIERAZLEEN LAN-TALDEA ETA OSOKO BILKURA

2- UDAL HARREMANETARAKO SAREA

3- WEB GUNEAREN BISITARIAK

4- INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKOAK

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN GALDETEGIEN EMAITZAK


Atal honetan, BGIPren osoko bilkuran eta Adierazleen Lan-taldean parte hartzen dutenek erantzundako ebaluazio-galdetegiaren azterketaren emaitzak bildu dira, Udalerrien Sarekoek eta ebaluazioa egiteko epealdian (2008ko ekainetik azarora) web gunea bisitatu dutenek erantzun dituztenak hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, osoko bilkurak eta adierazleen lan-taldeak erantzundako galdetegiaren emaitzak biltzen dira, eta hauentzat izan da galdetegia: gaur egun BGIBren osoko bilkuran edo Adierazleen Lan-taldean eta BGIBren ibilbidean talde horietako batean parte hartu dutenentzat. Emaitzen maila oso positiboa izan da, eta osoko bilkurako 13ren eta lan-taldeko 13ren erantzuna lortu da (lau pertsonak bi taldetan hartzen dute parte).

Jarraian, Udalerrien Sarearen galdetegiak azartuko dira, eta horien erantzun maila txikiagoa izan da proportzioan, zeren eta sarea osatzen duten 112etatik 15 udalerrik edo mankomunitateak eman baitute erantzuna, baina hainbat populazio dentsitateko (txikia, ertaina eta handia) udalerrri edo mankomunitate garrantzitsuak hartzen dituzte. Hauen erantzuna jaso da: Amorebieta, Arrigorriaga, Erandio, Ermua, Getxo, Portugalete, Sestao, Santurtzi, Leioa, Trapaga, Alonsotegi, Galdakao, Mungialdeko Partzuergoa eta Txorierrri eta Busturialdeko mankomunitateak. 42 udalerrri dira, eta guztira Bizkiko udalerrien %37,5 dira, hots, 416.026 biztanle eta Bizkaiko populazio osoaren %36,7.

Azkenik, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web orria bisitatu dutenek galdetegi labur bat erantzun dute, BGIBren ebaluazioan parte hartzeko diseinatua; web gunearen bidez guztira 15 galdetegi jaso dira.

ADIERAZLEEN LAN-TALDEA ETA OSOKO BILKURA




Lehen atalean, osoko bilkurako eta lan-taldeko partaideek egin dituzten balorazioen emaitzako aurkeztuko dira. Hiru galdetegi egin dira: bat osoko bilkurako kideentzat, beste bat adierazleen lan-taldeko partaideentzat eta hirugarrena bi taldetan parte hartzen dutenentzat egokitua. Galdetegi horiek galdera berak dituzte, bi taldeen funtzionamenduari buruzkoak izan ezik. Hortaz, item komunetan taldekatuta aurkeztuko dira emaitzak, lan-talde bakoitzean bertan banatuak.

Ezkerreko grafikoan ikus daitekeenez, ordezkaritza maila bera da osoko bilkuren partaideen eta lan-taldeko pertsonen artean, zeren eta biek baitute %41eko ordezkaritza eta galdetegi erantzuten duten pertsonen %18k bi taldetan hartzen du parte.

I- HELBURUEN BETETZE-MAILA

1. HELBURUA: Bizkaiko Lurralde Historikoko Emakumearen kontrako Indarkeriaren errealitatea ezagutzea

1. helburua behar bezala bete da




BGIB bi helbururekin sortu zen. Lehen helburua Bizkaiko Lurralde Historikoaren **emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatea** eta horren bilakaera ezagutzea da, izandako aldaketak aztertzeko. Helburu hori betetzeari eta lan-taldearen arteko egokitzapen mailari buruzko balorazio bat egitea, baita egitura eta helburu lortzeko erabilitako baliabideak ere.


Pertsona partaideek uste dute **behar bezala** bete dela helburua; bakarrik %4,5ek uste du oraindik ez dela lortu.

Inkesta egin zaien pertsonen %95ek uste du diseinaturiko laneko plana egokia dela 1. helburua bete betetzeko, baina, txikiagoa izanda ere, gehienak dira uste dutenak BGIBren egitura egokia dela 1. helburua lortzeko lana egiteko (%91). Hala ere, erabilitako baliabideei eta 1. helburua betetzeko beharren arteko egokitzapen mailari dagokionez, inkesta egin zaien pertsonen %14k ia dio ez direla behar bezala egokitzen eta %82k kontrakoa dio, hots, egokiak direla.


Laneko lana egokia da 1. helburua betetzea lortzeko




BGIBren egitura egokiena da 1. helburua lortzea lantzeko



Erabilitako bitartekoak egokitu egiten zaizkie 1. helburua betetzeko beharrei






Zehaztu egiten da BGIBko kideek uste dutela Behatokian parte hartzen duten **erakundeek** beharrezko lan-eremuak biltzen dituztela Bizkaiko Lurralde Historikoko **emakumearen kontrako indarkeriaren errealitatea eta bilakaera ezagutzeko**, izandako aldaketak aztertzeko: %86,4 *ados* edo *oso ados* dago erakunde horiek beharrezko eremuak biltzearekin. Hala eta guztiz ere, elkarte-sareko beste gizarte eragile batzuk sartzea beharrezkotzat jotzen den ala ez ezartzearen inguruko a galderari dagokionez, %50 baino gehiago *ados* dago hala ezartzea beharrezkoa izatearekin, eta beste BGIBkoak ez diren beste erakunde batzuen ordezkaritza handitzeari dagokionez, berriz, BGIBko kideen %45ek beharrezkotzat jotzen du ordezkaritza **handitzea**.

BGIBn dagoen ordezkaritza zein elkarte edo erakunde motatan handitu beharko litzateke sakontzean, etorkinen eta ijitoen zenbait taldetako elkarteak aipatu dira. Erakundeak dagokienez, berriz, hauexek aipatzen dira: osasunaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila; hezkuntzaren arloan, Euskal Herriko Unibertsitatea; eta justiziaren eremuan, Justizia Administrazioa eta Abokatuen Elkargoa.

2. HELBURUA- Gomendioak eta proposamenak egitea, genero indarkeriaren eremuan eragina duten zerbitzuen eta prestazioen eskaintzen hobekuntza sustatzeko

2. helburua behar bezala bete da




BGIBren bigarren helburu gisa, genero indarkeriaren eremuan eragina duten zerbitzuen eta prestazioen eskaintzen hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak egitea ezarri da.


Helburu horri dagokionez, desadostasun handiagoa dago lehengoan baino helburuaren betetze-mailari dagokionez; %18 ez dago oso ados edo ez dago ados helburuen betetze-mailaren inguruan. Kideetatik %68k adierazi du ados edo oso ados dagoela 2. helburuaren betetze-mailarekin.

2. helburua 1. helburuarekiko duen betetze-mailaren desadostasun handiago hori laneko planaren, egituraren eta helburua betetzeko erabilitako bitartekoaren egokitzapen-mailan islatzen da. Ildo horretan, inkesta egin zaien pertsonen %68k uste du laneko plana egokia dela; %63,6ren arabera, erabilitako bitartekoak ondo egokitzen zaizkien helburu lortzeko beharrei, eta ehuneko txikiago batek uste du, %59k hain zuzen, BGIBren egitura egokiena da 2. helburu lortu ahal izateko.


Laneko plana egokia da 2. helburua betetzeko




BGIBren egitura egokiena da 2. helburua lortzea lantzeko




Erabilitako bitartekoak egokitu egiten zaizkie 2. helburua betetzeko beharrei




Erakunde partaideek 2. helburua lantzeko beharrezko eremuak ordezkatzeko dituzte



Beste gizarte eragile batzuen ordezkaritza handitu behar da 2. helburua lortzeko



Beste erakunde batzuk sartu behar dira 2. helbururako



2. helburua lortzeko gizarte eragileen edo erakundeen ordezkaritza handitu beharri dagokionez, BGIBko pertsonen %63,6k uste du bertan ordezkaturiko eremuetan parte hartzen duten erakundeek gomendioak eta proposamenak egiteko beharrezko eremuak ordezkatzeko dituztela, betiere genero indarkeriaren arloan eragina duten zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren hobekuntza sustatzea aldera. Ehuneko hori 1. helburuan erakusten zena baino txikiagoa da; izan ere, %86,4koa zen.


Elkarteetako beste **gizarte eragile** batzuk ezarri behar diren galdera eginda, %40,9 ados dago horiek ezartzearekin, eta BGIBn ez dauden beste erakunde batzuen ordezkaritza dagokionez, BGIBko kideen %36,4k uste du **ordezkaritza zabalagoa** izan behar duela.

Erakunde edo gizarte eragile berriak ezartzeari dagokionez ikusten denez, ez da hain beharrezkotzat hartzen genero indarkeriaren eremuko zerbitzuen eta prestazioen eskaintza hobetzeko (2. helburua) Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumearen kontrako indarkeriaren errealitatea eta eboluzioa ezagutzeko, izandako aldaketak aztertu ahal izateko (1. helburua).


II- BGIB-REN FUNTZIOAK


Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren funtzioen betetze-mailari buruzko balorazioak aurkezteko, hain zuzen erakundea sortzeko dekretuan ezarritakoak, lau taldetan sailkatu dira funtzioak. Lehenbizikoan, genero indarkeriaren arloko **informazioa biltzearekin** lotutako funtzioak daude. Bigarrenik, BGIB profesionalen eta administrazio edota erakundeen arteko **topa-gune edo elkartrugerako gune** izatearekin lotutakoak. Hirugarren taldean, BGIB azterketarako gunea izatearekin lotutakoak daude. Azkenik, BGIBren **barne-funtzionamendurako** funtzioak biltzen dira (G4).

BGIBren funtzioen betetze-maila (1. taldea)



BGIBren funtzioen betetze-maila (2. taldea)





Oro har, BGIBk informazio-gune (1. taldea) eta barne-funtzionamendu gisa (4. taldea) dituen funtzioak dira betetze-maila handiena dutenak, pertsona informazio-emaielen arabera.

Informazioa biltzeko funtzioen artean (1. taldea), %92k uste du BGIBk informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa jarduten duela tratu txarren biktimak diren emakumeen arretarako hainbat eremutan. Bestalde, gutxien landu den funtzioa emakumearen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuek erabilitako adierazleak eta informazio sistemak dira.

BGIBk topa-gune eta elkartruckerako gune gisa dituen funtzioei dagokienez (2. taldea), %50ek uste du BGIB komunikatorako eta informazioa trukatzeko gune bihurtu dela, genero indarkeriaren arloko ikerketako taldeen azterketarako lana errazteko, eta ehuneko handi baten arabera (%64), ez da parte hartzen eta ez dago antzeko beste erakunde batzuekin harremanik izaten. Izan ere, ezagutzeko daude beste administrazio edota erakunde batzuek izandako eta abiarazitako **esperientziak eta berrikuntzak**.

BGIBk **azterketarako gune** gisa dituen funtzioei dagokienez (3. taldea), neurri handi batean lortu egin da (%60) baliabideen eskaintzaren hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak egitea eta erakunde egokiei helaraztea, eta ondoren, indarkeriaren errealitatearen tamainari eta eboluzioari buruzko diagnostikorako eta eboluziorako txosten teknikoak egiteko proposamena (%50). Ildo horretan, parte hartu duten pertsonen %59ren ustez egiteke dago biktimentzako neurri integralen egokitzapena aztertzea, ondorioak eta eraginak ikertzea eta jardun ona aztertzea.


Barne-funtzionamenduari buruzko funtzioei dagokienez (4. taldea), biak bete egin dira %82ren arabera.

III- LANEKO PROZESUA


Atal honetan, adierazleen taldearen eta osoko bilkuraren bileretako prozesuarekin lotutako hainbat alderdi bildu dira. Bileren elementu formalak aztertzea da helburua: deialdia, gai-zerrenda, urteko proiektua, aktak, dokumentazioa, denbora, ordukotasuna, iraupena eta horietako bakoitzarekiko gogobetetasun-maila. Bi taldeen funtzionamenduaren inguruko ezaugarri desberdinak direla-eta, banatuta ematen dira emaitzak.

Adierazleen talde-lana

Betetze-maila (1. taldea)



Betetze-maila (2. taldea)




Eskuineko grafikoan ikus daitekeenez, **denborarekin** (1. taldea) lortutako ezaugarriak bildu dira hala nola laneko dokumentazioa emateko epeak, deialdiak bilera baino zenbat denbora lehenago jasotzen den, bileretarako ordukotasuna eta bilerak amaitzeko ordutegiak betetzea. Adierazleen lan-taldean parte hartzen dutenen arabera, beti jasotzen dituzte nahikoa denbora lehenago adierazleen talde-laneko bileretarako laneko dokumentazioa eta deialdia, hain zuzen ere %69ren eta %62ren arabera hurrenez hurren. Balorazio txikiagoa egiten da, ordea, bileretarako ordukotasunaren eta bilerak amaitzeko ordutegiaren inguruan; nabarmentzekoa da %23k uste duela ia inoiz ez direla bilerak **orduan** hasten.


Betetze-maila hobea dute eskuinean agertzen diren eta **laneko dinamikarekin** (2. taldea) lotutako ezaugarriek. Lan-taldeari dagokionez, %85ek uste du plan horrek garatu beharreko gutxieneko atazak, lehenetsiak eta lortu beharreko helburuak dakartza, eta bilerak bat datoz laneko plan horrekin. Lan-taldearen bileren **gai-zerrendari eta aktari** dagokienez, %85ek uste du aktan beti agerrarazten direla hartutako erabakiak; %77ren usteetan, beti uzten dira jasota gai-zerrendan punturik garrantzitsuenak. Azkenik, partaideen proposamenak eta iradokizunak gai-zerrendan agerrarazteari dagokionez, %23k uste du soilik batzuetan betetzen dela.

Osoko bilkura

Betetze-maila (1. taldea)



Betetze-maila (2. taldea)



Osoko bilkurako kideek laneko prozesuarekin lotutako ezaugarrien betetzeari buruz eginiko balorazioari dagokionez, lan-taldeko partaideen antzeko balorazioa egiten da. Hauexek dira baloraziorik onena duten ezaugarriak (%85 hurrenez hurren): deialdiak nahikoa denbora lehenago jasotzea, bilerak lehenago erabakitako eta onetsitako laneko planarekin bat etortzea eta osoko bilkuretan hartutako erabakiak aktan agerraraztea.


Gutxiago baloratzen dira lehentasunak, oinarriko atazak eta lortu beharreko helburuak dakartzan laneko plan bat egitearen inguruko betetze-mailari dagokionez, baina nahikoa altua izateari eusten zaio (%77).

Nabarmentzekoa da ebaluazioan parte hartu duten osoko bilkurako kideen %85ek esatea bileretarako ordukotasuna soilik batzuetan betetzen dela. Bestalde, %15ek uste du ia inoiz ez direla biltzen partaideen proposamenak eta iradokizunak osoko bilkuren gai-zerrendetan.

Gogobetetasun maila


Adierazleen lan-taldea

Laneko prozesuarekiko gogobetetasuna



Txiki	8							
Hala mod.	38	23	8	8	15	8		15
Handia	38	46	54	69	38	38	46	46
Oso handia	8	23	31	15	31	38	38	15
ED/EE	8	8	8	8	15	15	15	23

Laneko prozesuarekiko gogobetetasuna



Txiki									
Hala mod.	31	31	15	8	8	8			31
Handia	6	54	61	54	38	31	23	46	31
Oso handia			8	8	23	23	62	38	15
ED/EE	23	15	15	31	31	38	15	15	23

Jarraian, adierazleen lan-taldean parte hartu duten pertsonen laneko prozesuarekin lotutako hainbat ezaugarriren betetze-mailari buruzko balorazioak agertuko dira.


Oro har, gogobetetasun altua edo oso altua da alderdirik gehienetan. Nabarmendu egin behar da partaide guztien proposamenak gai-zerrendan ezartzeari buruzko galdera eginda, %23k uste duela proposamena horiek batzuetan sartzen direla (betetze-maila); puntu horretan dagoen gogobetetasun-maila, ordea, altua edo oso altua da %84ren arabera.

Gutxi gorabehera %85en arabera gogobetetasun-maila altua edo oso altua dago honako hauekin: BGIBko idazkaritza teknikoak eginiko lanarekin eta koordinatzaileak eta idazkariak eginiko dinamizazioarekin, lehenetsuen, oinarritzko atazen eta lortu beharreko helburuen laneko planaren argitasunarekin eta gai-zerrendan punturik garrantzitsuenak ezartzearekin.

Bilerak egiteko maiztasunaren inguruan dago gogobetetasun-mailarik txikiena; izan ere, %8k adierazten du gogobetetasun txikia duela alde horretatik. Adierazleen lan-taldea osatzen duten pertsonen %31ren arabera, hala moduzkoa da bilerak egiteko gunearekin, partaideen ordukotasunarekin eta bileren iraupenarekin dagoen gogobetetasuna.


Osoko bilkura

Laneko prozesuarekiko gogobetetasuna



	Maiztasuna	Deialdiak	OD garrantzitsua	OD proposamenak	LP-ren koherentzia	Akta	Dokumentazioa	Berdintasuna
■ Txiki	8			8	8			
■ Hala mod.	23	15	23	15	8	15		15
■ Handia	54	61	54	61	69	61	77	62
■ Oso handia	8	15	15	8	8	15	8	8
■ ED/EE	8	8	8	8	8	8	15	15

Laneko prozesuarekiko gogobetetasuna



	Ordukotas.	Iraupena	Aprobetxamendua	Erakunde arteko harremanak	Pertsonen arteko harremanak	Malgutasuna	Idazkarit. Teknikoa	Kordinatzaile eta idazkaria	Gunea
■ Txiki						8			
■ Hala mod.	38	15	23	8	23	8			23
■ Handia	46	69	61	23	54	61	77	69	61
■ Oso handia			8	46		8	8	15	
■ ED/EE	15	15	15	23	23	15	15	15	15

BGIBko osoko bilkurako kideek ere gogobetetasuna adierazi dute osoko bilkuren laneko prozesuko alderdiekin; ondoren azalduko da gogobetetasun hori.


Gogobetetasun handia edo oso handia da alderdirik gehientsuenetan, adierazleen lan-taldean parte hartzen duten pertsonen artean antzeman den bezala.

Adierazleen lan-taldean gertatu bezala, BGIBko **idazkaritza teknikoak** eginiko lana eta **koordinatzailearen eta idazkaritzaren** animazioa dira gogobetetasun-mailarik handiena dutenak: %85ek gutxi gorabehera adierazten du gogobetetasun handia edo oso handia duela, eta osoko bilkurako kideen artean, ondoen balioetsitako ezaugarrien artean emandako **dokumentazioaren** baliagarritasuna da.


Lan-taldearekin gertatu bezala, bilerak egiteko **maiztasuna** da gogobetetasun txikiena erakusten duen ezaugarria; %8 uste du txikia dela atal horretan dagoen gogobetetasuna. Bileretara bertaritzen diren pertsonen **ordukotasunarekiko** gogobetetasun-maila hala moduzkoa da osoko bilkurako kideen %38ren ustetan BGIBn batera lan egiteko **erakunde arteko harremanen** egokitze-mailari dagokionez, nabarmentzekoa da %46 pozik dagoela.

IV- BEHATOKIAREN KONTSULTAKO PRODUKTUAK (BGIB)

Kalitatearen balorazioa



Erakundeko pertsonen erabilera




Behatokiak (BGIB) hainbat tresna edota bitarteko tekniko eskaintzen ditu hark egiten duen lanari buruzko informazioa emateko. Lehenik eta behin, Behatokiaren web orria dago, eta ondoren BGIBk sortutako produktuak daude: baliabideen mapa, baliabideen atlasa, dokumentuen kudeatzailea, zifren dokumentua, adierazleen taldeko edo osoko bilkurako kideek egindako lanari buruzko informazioa, BGIB buletina eta Bizkaiko indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta juridikoa eta psikologikoko eta harrerako baliabideen katalogoa. Adierazleen taldeko eta osoko bilkurako kideek produktu horiek kalitatea baloratu dute, baita erakundeetako kideetako batek produktuak erabiltzen dituen ala ez jakitea ere.

Produktuen **kalitatea**, oro har, ona edo oso ona dela irizten zaio, hain zuzen ere %86 eta %96 bitarteko balioekin. Baloraziorik txikiena duten bi tresnak **web** orria eta **baliabideen atlasa**; izan ere, horien kalitatea nahikotzat jotzen du inkesta egin zaien pertsonen %14k, baina ona edo oso ona dela irizten diotenen ehunekoa nabarmen handiago da (%86 bietan).

Hainbat erakundetako pertsonak produktu horiek **erabiltzeari** dagokionez, soilik lan-taldeko kideei zuzendu zitzaizen galdera hori, eta hauexek aipatu zituzten gehien erabiltzen diren produktuak: **baliabideen katalogoa** eta **baliabideen mapa** (%69), eta ondoren web eta baliabideen atlasa. Gainerako produktuak gutxiago erabiltzen diren irudipena dago; izan ere, %50 inguruko erabilera du.

V- BGIB EZAGUTARAZTEA

Eman al da zure erakundean BGIBren berri?




BGIB ezagutarazteko lanari dagokionez, %86 uste du Behatokiaren berri eman dela; %14k, berriz, ez daki hori egin izana edo ezagutarazi ez dela dio.

Bestalde, informazioa eman dutenen herenak uste du BGIBk oraindik ez duela erakundean **behar bezala** ezagutarazi, eta %91ek dio gehiago ezagutarazi behar dela.


BGIB hobeto ezagutarazteko estrategien artean, %91ek beharrezkotzat jotzen du **jardunaldietan edo kongresu** espezializatuetan duten presentzia handitzea.

Azkenik, parte hartzen duten pertsona guztiek balorazio ona egiten dute **Komunikazio plan** bat ezartzearen inguruan.


Zure ustez beharrezko ahaleginak egin al ditu BGIBk berak egindako lana ezagutarazteko?




Beharrezkotzat jotzen duzu BGIB gehiago ezagutaraztea?



Beharrezkotzat jotzen al duzu BGIBren presentzia handitzea gaiarekin lotutako jardunaldietan edo kongresuetan?




Balorazio ona egingo zenuke komunikazio plan bat ezartzearen inguruan?




VI- BGIB-REN ETORKIZUNA


Helburu berriak sartzea



Funtzio berriak sartzea



Lan-ildo berriak sartzea



BGIBko kideek parte hartzen duten proiektuaz duten irudipenari dagokionez, BGIB sortu zenetik jarduketak eraundu dituen 2004/08 jarduketa plana ezarri ondoren, helburu, funtzio edo lan-ildo berriak sartzea beharrezkotzat jotzen duten galdetu zaie.

Adierazleen Lan-taldeko eta osoko bilkurako kideek oro har uste dute ez dela beharrezkoa sartzea helburu, funtzio edo jarduketa-ildo berrien hurrengo jarduketa planean. Jarduketa-ildo berriak sartzeari dagokionez, %13,6k beharrezkotzat jotzen du horiek sartzea.

UDAL HARREMANETARAKO SAREA

I- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN BEHARRA

II- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN EZAGUTZA

III- BGIB-REN KONTSULTAKO PRODUKTUAK

IV- BGIB-K ESKATURIKO INFORMAZIOA


V- INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNA

VI- INFORMAZIOA BILTZEKO PROZESUA


VII- BGIB-REN ERAGINA

I- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN BEHARRA

Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei buruzko datu eguneratuak izateko beharra



Bizkaian Genero Indarkeriaren Behatoki baten beharra




Lehenbiziko atalean, Udal Harremanetarako Sareko kideek egiten duten balorazioari buruzko ezaugarri orokorrak biltzen dira: batetik, genero indarkeriarekin n biktimak diren emakumeei buruzko datu eguneratuak bildu **beharrari** buruz eta bestetik Bizkaian Genero Indarkeriaren Behatoki bat izateari buruz.

Udal Harremanetarako Sareko informazio-emaile ia guztiak irizten diote oso beharrezkoa edo beharrezkoa dela (%93) etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei buruzko **datu** eguneratuak izatea, baina %6,7k uste du behar txikia dagoela datu horiek biltzeko.


Bizkaian Genero Indarkeriaren Behatoki baten beharrari dagokionez, oso altua da oso beharrezkoa edo behar-beharrezkoa dela irizten diotenen ehunekoa (%79).

II- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAN PARTE HARTZEA ETA HURA EZAGUTZEA


Behatokiaren helburuen ezagutza (BGIB)




Behatokiak (BGIB) egindako jardueraren ezagutza



Zeuk emandako informazioarekin Behatokiak (BGIB) egiten dituen datuen erabileraren ezagutzea



BGIBn parte hartzeko bideak handitu beharra




Udal Harremanetarako Sarearen ezagutzari eta partaidetzari dagokionez, alde batetik BGIBren helburuen, jardueraren eta emandako datuen erabileraren ezagutzaren maila ikusten da. Bestalde, BGIBren Udal Harremanetarako Sarean parte hartzeko bideak handitu beharko liratekeen adieraztea eskatu zen.

Ezagutzari dagokionez, %20 ingurukoa da helburuen, jardueraren eta informazioaren gaineko ezagutza txikia edo oso txikia dutenen ehunekoa. %33 eta %40 ingurukoa da horien gaineko ezagutza altua edo oso altua dutela irizten diotenen ehunekoa. Ehunekorik handiena helburuen, jardueraren eta datuen erabileraren gaineko hala moduzko ezagutza dutela diotenen artean dago (%40-47).


Ebaluazioan parte hartu duten Udal Harremanetarako Sareko kideen %60k uste du beharrezkoa edo oso beharrezkoa izango litzatekeela BGIBn **parte hartzeko bideak** handitzea.

III- BGIB-KO KONTSULTAKO PRODUKTUAK

Erabileraren maiztasuna



Kalitatearen balorazioa




Behatokiak (BGIB) hainbat tresna edota bitarteko tekniko eskaintzen ditu hark eginiko lanari buruzko informazioa eskaintzeko. Lehenik eta behin, Behatokiaren web orria dago (BGIB) eta ondoren BGIBk sortutako produktuak daude, web orri horretan aurki daitezkeenak. Udal Harremanetarako Sareko pertsonak adierazi dute produktu **horiek sarritan erabiltzen** dituztela eta **kalitatezkoak** direla.

Hauexek dira erabili ohi diren produktuak: **BGIB buletina** (%27), **Web orria** (%20), **baliabideen katalogoa** (%20), **baliabideen dokumentua** (%13) eta **baliabideena** (%7). *Inoiz* kontsulta egiten dute galdetegi erantzun duten Udal Harremanetarako Sareko pertsonak: baliabideen mapa (%60), Web orria (%47), zifren dokumentua (%40) eta intereseko dokumentuak (%40).

Erabiltzen ez diren baina kontsultatuko direla aurreikusten diren produktuen artean, kasuen %53 baliabideen atlas dugu eta %40 dokumentuen kudeatzailean. Nabarmentzekoa da %27k ez duela kontsultarik egiten, eta ez du aurreikusten kontsultarik egitea zifren dokumenta.

Oro har, hainbat produktu erabiltzen dutenen artean, gehienek uste dute kalitate onekoa dela, salbu eta baliabideen atlas, dokumentuen kudeatzailea eta lantaldearen eta osoko bilkuraren aktak; izan ere, nahikoa kalitatekotzat jotzen dutenen ehunekoa ontzat hartzen dutenena baino handiagoa da.


Baliabideen Katalogoaren kalitatea nabarmentzen da, %7ren ustez oso *ona* eta %33ren arabera *ona* dena, baita **Baliabideen mapa** ere: *ona* da %40ren kasuetan.




Erakunde desberdinetako pertsonak BGIBk sortutako produktuak erabiltzeari dagokionez, hauexek dira produkturik erabilienak: **Web gunea, Baliabideen katalogoa eta baliabideen mapa** (%27), ondoren zifren dokumentua, BGIB buletina eta dokumentu interesgarriak. Gainerako produktuak gutxiago eskatzen direla ikus daiteke, erabilera portzentajea ez baita iristen %20ra.

IV- BGIB-K ESKATURIKO INFORMAZIOA

Eskaturiko datuen garrantzi maila



Eskaturiko datuen garrantzi maila




Atal honetan, erreferentziako pertsonentzat udal eta mankomunitate bakoitzean bilketa-fitxan eskaturiko datuek duten **garrantzi edo egokitasun** mailari buruzko azalpena emango da.


Oro har, eskaturiko datuek *garrantzi handia edo oso handia* dutela irizten zaio. Garrantzi maila txikiagoa du sortze-datak (%20 txikia), inoren laguntza behar duten adinekoen kopurua eta zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua (%8 txikia); hala ere, pertsona gehienek datu garrantzizkotzat edo oso garrantzizkotzat jotzen dituzte.

Genero indarkeriaren biktimak diren erabiltzaileen kopurua gehieneko garrantzia duen datutzat jotzen du Udal Harremanetarako Sareko herenak, eta %13k hala-moduzko garrantzia duela nabarmendu behar da.

Eskaturiko datuen eskuratzeko zailtasuna



Eskaturiko datuen eskuratzeko zailtasuna




Bigarrenik, eskaturiko datuei dagokienez, eskaturiko datuak lortzeko zein **zailtasun maila dagoen** baloratu da.

%50etik gorako portzentajeekin agerrarazi denez, eskaturiko datuak lortzeko zailtasuna *txikia edo oso txikia* da; datu horiek zerbitzuaren ezaugarri dagozkie hala nola sorrera-data, aurrekontua, arreta ordutegiak eta zerbitzuan dauden profesionalen kopurua.

Hala ere, zerbitzuak lagundutako **pertsonen ezaugarri**ei buruzko datuek **zailtasun maila** handiagoa dute hala nola harrerako baliabideetara lagundutako adingabeen kopurua sexuaren arabera banatuta, erabiltzaileen kopurua eta genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen kasu berriak eta inoren laguntza behar duten adinekoen kopurua. Datu hau nabarmentzen da: udal harremanetarako sareko pertsonen %27k baino ez du zailtasun gutxi etzeko tratu txarren **biktimak diren emakume erabiltzaileen datuak lortzeko**.

Datu berrien interes-maila




Udal Harremanetarako Sarean parte hartzen duten pertsonen eskaturiko datuei dagokienez, hurrengo datu-bilketan hauexek sartzeko posibilitatea baloratu du Udal Harremanetarako Sareak: **emakume** etorkinei buruzko datuak eta zerbitzuaren **betetze-maila** (itxaron-zerrenda).

%87 - %93k uste du oso interesgarria edo interesgarria dela bi ezaugarri horien sartzea Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren hurrengo informazio-bilketan. Soilik %7k uste du ez dela oso interesgarria ezaugarri horiek datuen bilketan sartzeko.

V- INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNA

Bilketako tresnal eskuratzeko eta erabiltzeko zailtasun-maila




Atal honetan, datuak biltzeko tresnak eskuratzean eta erabiltzean ikusitako **zailtasunak** biltzen dira genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako baliabideei dagokienez.

Tresna **eskuratzeari** dagokionez, %40k dio zailtasun *txikia edo oso txikia* da, eta %14k dio zailtasunak dituzten tresnak eskuratzeko. Tresnak **erabiltzeko** zailtasunari dagokionez, ezagutza informatikoekin lotzeko eskatu zen eta zailtasuna baloratu zen; hala, pertsonen %25ek dio ez dutela zailtasunik tresnon erabilerarako.


Azkenik, **eskaturiko datuen argitasuna** da zailtasun handiak dituena, zeren eta Udal Harremanetarako Sareko pertsonen %34k baitio zailtasunak dituela zein datu eskatzen ari diren jakiteko.

VI- INFORMAZIOA BILTZEKO PROZESUA

Gogobetetasun-maila



Zailtasun-maila




Atal honetan, informazioa biltzeko prozesuaren faktoreak lantzen dira: komunikazio estua Idazkaritza Teknikoarekin, iradokizunak, zalantzak, fitxak betetzeko epeak, datuen kontsultaren maiztasuna, eskaturiko datuen argitasuna eta fitxaren tamaina. Bestalde, ezkerreko grafikoan ikus daitekeenez, partaidetza edo eskaturiko datuak lortzea zailtzen duten ezaugarriez galdetu zen.

Informazioa biltzeko prozesuaren gogobetetasunari dagokionez, hauexek dira gehien baloratzen direnak: iradokizunak eta zalantzak hartzeko BGIBk duen gaitasuna (%73% a altua) eta Idazkaritza Teknikoarekiko komunikazio erraztasuna (%47 altua edo oso altua). Gogobetetasun txikiagoa agertzen da datuen kontsultako maiztasunari (%33 txikia edo oso txikia) eta fitxaren tamainari dagokienez (%27).

BGIBri datuak emateko eta parte hartzeak profesionali planteatzen dien zailtasunik handiena **gehiegizko lana** da; %93k dio handiak edo oso handiak direla parte hartzeko zailtasunak. Jarraian, beste profesional batzuekin harremanetan jarri beharra dago, eskaturiko datuak eman diezazkieten (%66 handia edo oso handia).

VII- BGIB-REN ERAGINA

Adostasun-maila



Udal Harremanetarako Sarearentzako galdetegien emaitzei buruzko atala amaitzeko, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak gizartean, udalean edo mankomunitatean edo lanean izan dezakeen eraginari buruzko hainbat ezaugarri planteatu ziren, hain zuzen ere ezaugarri horiekiko adostasun edo desadostasun maila zehazteko.

Inkesta egin zaien pertsonen arabera, BGIBk, lehenik eta behin, **eragin positiboa** du **gizartean**, zeren eta genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen errealitatea sakon ezagutzeko modua ematen baitu (%66 ados edo oso ados). **Lanbidean eragin ona** du %54ren ustetan, zeren lagungarria izan baitzaie genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei buruzko informazioaren bilketa sistematizatzeke, eta ia erdiak uste du (%47) BGIBk eragin ona izan duela bere **erakundeak**, zeren eta genero indarkeriaren biktimei buruzko erregistroak hobetu behar duelako.

Bestalde, %53 ez dago ados BGIBk informazioa eskatzeak beharrezkoa ez den lan-karga ekartzearekin. Eta Udal Harremanetarako Sareko pertsonen heren batek uste du BGIBk haiek espero dituzten **igurikapenak** betetzen dituela.

3- WEB GUNEAREN BISITARIAK

I- WEB GUNEAREN KONTSULTAK


II- BEHATOKIAREN KONTSULTAKO PRODUKTUAK (BGIB)

3- WEB ORRIALDEAREN BISITARIAK


Azkenik, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web gunea ebaluazio hau egiten den hileetan bisitatu duten pertsonentzako galdetegi laburraren azterketa laburraren datuak emango dira. Hala, 15 pertsonaren erantzuna lortu da, eta horien profil soziodemografikoak, kasuen %100ean, Bizkaiko emakumeenak dira. Galdetegi erantzun duten pertsonen lan arloen edo intereseko arloen artean, Gizarte Lana, Emakumea eta Berdintasuna, Dokumentazioa, Gizarte Zerbitzuak, Psikologikoa eta Lege Aholkularitza daude. BGIBk eginiko lanari eta web gunearen erabileraren maitasunari buruzkoa da galdetegi.

I- WEB ORRIAREN KONTSULTAK


Kontsultaren maiztasuna



Hurrengo bisita




Kontsulta egiteko arrazoiak




Web guneko galdetegi erantzun dutenen %53k inoiz **bisitatzen** du web orria, %27 ohiko erabiltzailea da eta %20k dio lehen aldia dela bisitatzen dutela. %60k dio orrialdea bisitatu duela galdetegi erantzun eta 30 eguneko epearen barruan bisitatzen duela orrialdea, eta %40 ez zegoen seguru orrialdea berriz ere bisitatzearan inguruan. Kasuen %86an **informazioa biltzeko** egiten da kontsulta.

II-BGIB-REN KONTSULTAKO PRODUKTUAK

Kontsultaturiko produktuak



Webaren balorazioa



BGIBk web gunean eskaintzen dituen produktuen kontsultari dagokionez, Bizkaiko genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretara juridiko, psikologiko eta harrerako **baliabideen mapa eta baliabideen katalogoa** dira gehien erabiltzen direnak (%54), ondoren BGIB Buletina eta dokumentu interesgarriak (%38).

Web gunearen hainbat ezaugarri baloratzeko eskatu zen: erraztasuna eta erabiltzeko erraztasuna, eduki askotarikoak eta eguneratuta izatea eta diseinua.

Erabiltzeko erraztasuna eta orriak deskargatzeko bizkortasuna dira gehien baloratzen direnak, %85ek uste du kalitate altukoa edo oso altukoa dela dio Web gunearen ezaugarri horren ondotik, edukia ona edo oso ona da %59ren ustez, edukiak eguneratzeagatik (%54) eta diseinuagatik (%54).

4- INDARGUNEAK ETA HOBETU BEHARREKOAK

1- ADIERAZLEEN LAN-TALDEA ETA OSOKO BILKURA

2- UDAL HARREMANETARAKO SAREA

3- WEB GUNEAREN BISITARIAK

ADIERAZLEEN TALDE-LANAREN ETA OSOKO BILKURAREN BALORAZIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Laneko plana, egitura eta baliabideak egokitzea 1 eta 2. helburuak lortzeko. <input checked="" type="checkbox"/> BGIB erreferentziako informazio-gune gisa. <input checked="" type="checkbox"/> Argi izatea helburuak, xedeak eta adierazleen lan-taldeko eta osoko bilkurako kideek egin beharreko atazak. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBko idazkariak eta lan-taldeko koordinatzaileak egindako dinamizazioa. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren produktuen kalitatea. 	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren produktuak erakundeetan erabiltzea. <input checked="" type="checkbox"/> Parte hartzea eta harremanak izatea antzeko beste administrazio edo erakunde batzuekin. <input checked="" type="checkbox"/> Lan-taldearen bilerak egiten diren gunea. <input checked="" type="checkbox"/> Bertaratzen diren pertsonen ordukotasuna. <input checked="" type="checkbox"/> BGIB ezagutaraztea erakundeei, bertako kide ez diren erakundeei eta herritarrei oro har.
GOMENDIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Hainbat eremutako ordezkartza handitzea: justizia, hezkuntza eta osasuna. <input checked="" type="checkbox"/> Adierazleen talde-lanaren bileren iraupena ezartzea. <input checked="" type="checkbox"/> Asistentzia konfirmatzea. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren eta egindako produktuen zabalkundea sustatzea komunikazio plan bat eginda. 	

UDAL HARREMANETARAKO SAREA	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Genero indarkeria jasaten duten emakumeei buruzko datu eguneratuak izan beharraren gaineko irudipena. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBn parte hartzeko interesa datu-bilketatik harago. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren buletina, web orria, baliabideen katalogoa, intereseko dokumentuak eta baliabideen mapa erabiltzeko maiztasuna. <input checked="" type="checkbox"/> Eskaturiko datuei emandako garrantzi maila. <input checked="" type="checkbox"/> Emakumeen jatorriari eta zerbitzua betetzeari buruzko datuak sartzeko interesa. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBk iradokizunei eta zalantzei erantzuna emateko maila. <input checked="" type="checkbox"/> BGIBk eragin ona izatea erakundean eta lanean. Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei buruzko informazioa sistematizatzeko laguntza. 	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren helburuak eta jarduera ezagutzea eta datuak erabiltzea. <input checked="" type="checkbox"/> Oraindik baditu zailtasunak Udal Harremanetarako Sareak genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei buruzko datuak lortzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Inoren laguntza behar dutenak eta adingabe laguntzaileak zenbatzeko eta sexuaren arabera banatzeko zailtasuna. <input checked="" type="checkbox"/> Datuak biltzeko tresnaren erabilgarritasuna. <input checked="" type="checkbox"/> Eskaturiko datuak argiak izatea. <input checked="" type="checkbox"/> Eskaturiko datuak eskuratzeko zailtasuna eguneroko lan-karga eta datuak berehala lortzen ez direla eta. <input checked="" type="checkbox"/> Udal Harremanetarako Sarearen partaidetza-maila txikia.
GOMENDIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> BGIBren 04-08ko emaitzak ezagutarazteko jardunaldi bat egitea bereziki Udal Harremanetarako Sareko partaideentzat. <input checked="" type="checkbox"/> Datuak biltzeko tresnaren erabilgarritasuna hobetzea. <input checked="" type="checkbox"/> Eskaturiko datuak argitzea eta zehaztea. 	

WEB GUNEAREN BISITARIAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Genero indarkeriarekin lotutako lan arloak <input checked="" type="checkbox"/> Baliabideen mapa eta baliabideen katalogoak dira gehien kontsultaturiko produktuak <input checked="" type="checkbox"/> Hainbat zio kontsultarako 	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Web orria aurkitzeko zailtasunak <input checked="" type="checkbox"/> Edukiak eguneratzea <input checked="" type="checkbox"/> Bisitariak leial bihurtzea
GOMENDIOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Web orria ikusaraztea Bizkaiko Foru Aldundiaren orrialde nagusiaren bidez <input checked="" type="checkbox"/> Web orriaren aldaketak eta eguneratzeak bizkortzea 	

ONDORIOAK ETA AZKEN BALORAZIOAK

1- HELBURUEN BETETZE-MAILA

Behatokiaren Genero Indarkeriaren Behatokia bi helbururekin sortu zen: lehenbizikoa Bizkaiko emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatea eta eboluzioa ezagutzea izandako aldaketak aztertzeko. BGIBren bigarren helburua gomendioak eta proposamenak egitea da genero indarkeriaren arloan lan egiten duten zerbitzuen eskaintza sustatzeko. Helburuak lortzeari eta lan-taldearen, horren egituraren, erabilitako bitartekoen eta hori lortzeko egindako lan-prozesuaren arteko egokitzapen mailari buruzko balorazioa egin da. Bestalde, hainbat gomendio ematen dira bi helburuak lantzea indartzeko.

Helburuen izaera bera, ikusitako errealitatearen izaera dinamikoa dela-eta, etengabe bilakatuz doan prozesu bihurtzen da. Hori lantzea erronka handia da, zeren eta indarkeriaren egoera ezagutzeak berekin baitakar soilik agerraraz daitekeen errealitatea, abiarazitako baliabideetako bati heltzen dioten kasuak bakarrik ezagutu daitezkeelako. Hortaz, ezkutuko errealitate bat da, hura ezagutzeko modurik ez dago eta, beraz, ez dago bitartekorik indarkeria egoera hori agerrarazteko.

Lehenbiziko fase honetan, bereziki garrantzitsua izan da Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen kontrako indarkeria eta horren eboluzioa ezagutzeko eginiko ahaleginak. Gomendioak egiteari dagokionez, 2004-2008ko epealdia bukatzean landu dira adierazleen lan-taldean, genero indarkeriaren eremuan eragina duten zerbitzuen eskaintzaren hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak egitean; izan ere, BGIBk azken urteetan izan dituen datuak, esperientzia eta ibilbideak baliatuz bildu dira datuak. Hala eta guztiz ere, osoko bilkurako kideek (bi foroetako pertsonak izan ezik) ebaluazioa egitean ez zuten ez egindako lanaren ez lan horren berri. Hori dela-eta, 2. helburua betetzeari buruzko balorazioa (%68) 1. helburuak lorturikoa baino txikiagoa izan da (%95,5).

Ebaluazioan ikusi ahal izan denez, helburu horien inguruan egin da ebaluazioa, betiere lehen helburuan arreta berezia eskainiz, non ikuspegi homogenea izatearen zailtasuna konpontzeko egin baita lan. Hala izan da batez ere gizarte zerbitzuen arloan, askotariko informazio iturriak baitaude. Beste arlo batzuetan ez da hala gertatzen. Adibidez, poliziaren edo epaileen arloan, datu guztiak biltzen dituen iturri bakarra dago, hala nola Barne Saila edo Justizia, Lan eta Gizarte

Segurantzza Saila. Gizarte zerbitzuen arloan, ez dago lurraldeen araberako erregistro bateraturik, baizik eta tokiko erakunde bakoitzak bere erregistroak ditu eta batzuetan egon ere ez dago horrelakorik. Alde horretatik, aurrerapen oso handia lortu da, zeren eta datuak biltzearen garrantziaz jabeazai baikara, baita bilketa hori gizarte zerbitzuen jarduketa-prozesuaren zatia izateaz ere. Aurrerapen horretan lagungarria izan da nabarmen Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak urtero datuak biltzeko izan duen prozesua; izan ere, dinamizatzailearen eginkizuna bete du.

Ebaluazioan bildu den irudipenaren arabera, neurrizko anbizioarekin egin behar zaio aurre BGIBren fase berriari, lorturiko helburuak finkatzea ahalbidetzen duen faseari, zeren eta, BGIBren eskuetatik kanpora dauden proiektu berriei edo estrategia zabalei egiten bazaie aurre, kalitatea gal bailiteke lortu denaren inguruan. Izan ere, zentzua galduko lukete BGIBk garaturiko tresnek eguneratuta egon ezik.

a. Diru baliabideak

Diru baliabideei dagokienez, BGIBren kudeaketa tekniko eta administratiboa lehiaketa bidez dago esleituta, eta horretarako, bi urteko epealdi bat ezarri da kontratu nagusian, baita epealdi bereko luzapen bat ere. Une honetan (2008ko azaroa) kontratazio prozesu berria hasi da martxan, behin-behineko esleipen fasean dagoena. Aurreikuspenen arabera, 2008ko abenduko lehen hamabostaldian esleituko da behin betiko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak proiektuaren kostu osoa ematen du diru-laguntza gisa kontratuari aurre egiteko, eta balorazio positiboa egiten da proiektuak izan duen lasaitasun ekonomikoaren gainean. Horri esker, egonkortasunez eta iraunkortasunez egin ahal izan da lan lau urtean, hain zuzen ere laneko planaren aldizkakotasunarekin bat datorrena.

Kontratazio berriari begira, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handiak egingo ditu, BGIBren lana hazi delako, baita Behatokiak eskaintzen dituen produktuak ere. Hala gertatu da, ez bakarrik programa bategatik, baizik eta hasieran ezarrita ez zeuden produktuak sortu eta abiarazi direlako ere bai, betiere Behatokiaren garapenean sortzen ziren beharrei erantzutegatik eta norberaren

esperientziagatik. Bizkaiko Foru Aldundiak, hazkunde horretaz jabetuta, Behatokiaren hurrengo faserako onetsi duen aurrekontuan islatu du ahalegin hori.

b. Giza baliabideak, egitura.

Alde batetik, diru baliabideak daude, horien arabera izango baitira giza baliabideak; bestalde, barruko giza baliabideak daude: osoko bilkurakoak zein adierazleen lan-taldekoak diren pertsonak. Balorazio ona egiten da horien gainean, epealdi horretan ez da ikusi horiek indartzeko edo aldatzeko beharrik, baina baloratzeko modukoa izango litzateke baldin eta BGIBren ibilbide berrian erronka berriei egiten bazaie aurre.

BGIBren baitako esperientziak talde berria eratzea planteatzen zuen, gomendioak eta proposamenak egiteko prozesuari aurre egiteko. Talde espezifiko bat eratzeko posibilitatea aztertu zuen osoko bilkurak, baina zentzurik ez zuela ondorioztatu zen, zeren eta ondoko hauetatik sortu behar baitziren gomendioak: informazioa biltzeko prozesutik beretik eta informazioa biltzeko prozesuan izandako esperientziatik beretik eta informazio biltzeko prozesu horretatik, ikusi diren zailtasunetatik, informazioaren eboluziotik, etab... Eta adierazleen lan-taldearen baitan zegoen, hain zuzen ere, azterketa sakona egiteko beharrezko informazio-sorta.

Adierazleen lan-taldearen **funtzionamenduari** dagokionez, taldearen egitura oso egokia dela irizten zaio, bai taldeko pertsona kopuruaren aldetik (zeren eta kopuru handiagoak zaildu egin bailuke lana), bai pertsonen ordezkartzaren aldetik. Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeekin jardutearekin eta arretarekin lotutako beste eremu batzuk ezartzeko posibilitateari dagokionez, badira zenbait eremu interesgarri, hezkuntza edo osasuna adibidez, beste sektore batzuen arazoak ezagutzeko modua eman dezaketenak; izan ere, sektore horietan ezin da eraginik ezan, ordezkariarik ez dagoelako. Baina egiten ari den lana gehiago finkatu beharko litzateke arlo berriak sartzeko eta, gonbitea martxan jarriz gero, BGIBn parte hartzeak berekin dakarren lana eta konpromisoak bereganatzeko izendaturiko pertsonen baliagarritasuna baloratu beharko lukete erakunde berriek.

Adierazleen lan-taldean eta osoko bilkuran parte hartu duten eta parte hartzen duten pertsonak **txandakatzeari** dagokionez, partaidetza txikia izan da, eta hori laneko dinamika egokiagoak sortzeko oso positiboa eta beharrezkoa dela irizten

zaio. Gainera, arreta berezia jarri da, txandakatze hori gertatuz gero, funtzioen esku-aldaketa programatuta egitearekin, ordezkartzari uzten dion pertsonaren eta arduraz jabetzen den pertsonaren arteko lankidetzaren handiarekin. Horrek agerian uzten du BGIBn parte hartzen duten pertsonen eta erakundearen konpromisoa.

Bestalde, lan-talde bakarraren baitan (adierazlearen lan-taldea) **egindako lana** denaz bezainbatean, oso esperientzia positiboa izan da, zeren taldea dinamizatu, lanean laguntza eman eta buruturiko lanean oso modu positiboan parte hartu duten pertsonak izan baitira; izan ere, abian jarritako ekimen askoren eragileak izan dira.

c. Laneko plana

Balorazio ona egiten da lan-taldearen egokitzapenari buruz, zeren eta, helburuak kontuan hartzen badira esana dugun moduan, altua baita helburuen betetze-maila.

Lan-taldean eta osoko bilkuran parte hartzen duten pertsonen laneko plan argia dute, eta plan horretan, lehentasunak, burutu beharreko oinarriko lanak eta lortu beharreko helburuak agertzen dira. Hala, lagungarria da egindako lana hobeto aprobetxatzeko.

Egiaztatu denez, BGIB ez dago beste erakunde batzuek abiarazitako ekimenetatik aparte, eta inguruan izan diren aldaketetara egokitu ditu bere laneko planak, betiere zerbitzuak bikoiztu gabe. Adibide gisa, protokoloak egiteko lan-taldearen kasu aipa daiteke. Hala, hasiera batean, bi lan-talde eratzeko posibilitate aztertu zen, bata adierazleena eta bestea jarduketa protokoloak eta lege tresna egiteko. Proiektu honekin batera, ordea, EUDELEK EMAKUNDEekin abiarazitako ekimena izan zen, hots, indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko Euskal Udalerrien Sarea (BERDINSAREA). Hori dela-eta, lanari ekiteko fororik egokiena dela irizita, ez zuen zentzurik hasierako asmoari eustea, eta lan hori indartzea aukeratu zen, BGIBren web bera zabalkunde-plataforma gisa erabiliz. Hala, Sareak dokumentuak biltzeko eta informazioa ezagutarazteko egiten duen lana bultzatuko da, eta BGIBren web orrialdean hainbat protokolo biltzen dituzten dokumentuak eskuratzeko modua erraztuz, betiere erakunde titularrek egoki irizten badiote.

d. Laneko prozesua

Laneko prozesuari dagokionez, lana bi aldetatik bideratu da. Batetik, adierazleen lan-taldeak eta osoko bilkurak eginikoa, eta bestetik, Udal Harremanetako Sareak emandako informazioa biltzeko prozesua.

i. Adierazleen lan-taldea eta osoko bilkura.

Bileren **maiztasunaren** inguruan eman du lan-taldeak gogobetetasun-mailarik txikienetako bat. Ez da aldizkako maiztasun aldaezina, egiten den lanari egokitzuz doakion maiztasuna baizik. Azken urtean maizago egin dira bilerak, lanaren intentsitatea handitu behar izan da, gomendioak egiteko lana egin baita eta hilean bi saio egiteko beharra izan baita; are gehiago, batzuetan hiru orduko saioak izan dira. Lan-karga handiago hori gorabehera, taldekideen **laguntza eta erantzuna mailak motibazio eta inplikazio handia erakusten dute proiektuarekiko.**

Lan-taldean sortutako erakunde arteko harremanekin eta pertsona arteko harremanekin duten gogobetetasunari buruz lan-taldeko kideei eginiko balorazioaren arabera (oso garrantzitsua lan-taldean funtzionamendu onerako, non pertsonak eta erakundeak batera lan egiten duten), badirudi lagungarriak izan direla lanerako proiektuak **lau urtean jarraitzea** eta BGIBren idazkariak eta adierazleen lan-taldeko koordinatzaileak lana dinamizatzea; izan ere, sinergia positiboak sortu dira pertsonen artean.

ii. Udal harremanetarako sarea

Gizarte zerbitzuen arloko lana premiazkoa eta itzela da, eta gizarte zerbitzuen erabiltzaileekiko jarduketa eta pertsonen arreta ematea lehentasunezkoa da. Lan ikaragarri handi horren ondorioz, atzerago uzten dira bestelako gaiak hala nola datuak biltzea, erregistroak eta galdetegiak betetzea, etab.

Udal harremanetarako sareari dagokionez, ezinbestekoa da udalerrien sare egonkorra, motibatua eta parte-hartzailea izatea. Hori gabe ezinezkoa da

Behatokiak behar bezala funtzionatzea, eta horretarako, ekintza hauek burutu dira:

- 1- Informazioa biltzeko fitxa informatizatu bat diseinatzea eta aplikatzea (banako formulario informatizatua), informazioa telematikaren bidez biltzea ahalbidetzen duena eta informazioa biltzeko, erregistratzeko eta tratatzeko sistema integralaren barruan sartzen dena.
- 2- Laguntza ematea eta erraztea betetze-prozesuan.
- 3- Egindako ahaleginak balioestea, partaidetza eskertuz eta datuak testuinguruan jarritz, betiere azken txostenak emanda lankidetzaren asmoa agerrarazteko.
- 4- Organoak bizirik jarraitzen duenaren erakusgarri, aldian-aldian trebakuntzako eskaintzari eta beste gai interesgarriei buruzko informazio buletina bidaltzen da.

BGIBk eskaturiko informazioa ikusteko eta identifikatzeko emandako datuak testuinguruan jartzeko prozesua ezarri du, zeren ezinbestekoa baita datu horiek non sartzen diren eta zein dokumentu sortzen den jakitea informazio hori oinarri hartuta. Informazio hori zifren dokumentuan, baliabideen dokumentuan edo baliabideen mapan islatzen da; izan ere, Harremanetarako Sarearen laguntza barik ezinezkoa izango litzateke eta lana errazteko pentsatuta daude. Harremanetarako Sareak baliabideak erabiltzeko modua ezagututa, estrategiak emaitza ona izan duela esan daiteke, askotan kontsultatu baitira.

Atzeraelikadura hori erakunde informazio-emaileekin izan dadin, prozedura bat ezarri da, non informazioa eman duten pertsonen informazio bidaltzen baitzaie egiaztatu ahal izateko, eta informazio hori dokumentu batean txertatuko da datuak eskatzeko asmoa zein den jakiteko eta emaitza ikus dezaten.

Udal Sareak egiten dituen proposamenei arreta berezia jartzeko eta harremanen bidez arreta hori harremanei eutsita dinamizatzeko, BGIBren buletinera bidaltzen da kontaktua. Kontaktua hori aktiboa dela erakusten dute BGIBk Saretik jasotzen dituen kontsultek.

2- BGIB-REN FUNTZIOEN BETETZE-MAILA

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren funtzioen betetze-mailari buruzko balorazioak aurkezteko (erakundea sortzeari buruzko Dekretuan ezarriak). Iau taldetan sailkatu dira funtzioak. Lehenbiziko taldean, genero indarkeriaren arloko informazioa biltzearekin lotutako funtzioak bildu dira; bigarrenik, BGIBk profesionalen edo administrazioen edota erakundeen arteko topa-gune eta trukaketarako gune gisa dituen funtzioak. Hirugarren taldea BGIBk azterketarako gune gisa dituen funtzioei buruzkoa da, eta BGIBren barne funtzionamendurako funtzioak biltzen dira.

Oro har, BGIBk **informazio gune gisa** dituen funtzioei dagokienez, **maila altuan landu** da. Hauexek daude funtzioen artean:

- Bizkaiko genero indarkeriari buruzko datuak bilduko dituen aplikazio informatiko bat diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea.
- Arretaren hainbat esparrutan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa jardutea.
- Emakumearen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuek erabilitako informazio sistemak eta adierazleak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

BGIBk **topa-gune eta elkartrukerako gune gisa** dituen funtzioei dagokienez, **maila ertainean landu** da. Hauexek daude funtzioen artean:

- Antzeko beste erakunde batzuetan parte hartzea eta erlazioak izatea eta beste administrazio batzuek hasitako eta planteaturiko erreformak ezagutzea.
- Elkartrukerako eta komunikaziorako foro bat eratzea, eta bertatik erraztuko dira genero indarkeriaren arloan ikerketa taldeak aztertzeko lanak.

BGIB, informazio gune gisa lorturiko aurrerapenak direla-eta, erreferente bihurtu da, bai EAE mailan, bai Estatu mailan, eta BGIBk hartu duen tokia ikusita, une egokia da antzeko erakundeekin eta administrazioekin lotutako erlazioa azpimarratzeko eta indartzeko.

BGIBk **azterketa-gune** gisa dituen funtzioei dagokienez, funtziook betetzeko eta Behatokiaren hurrengo fasean betetzea lortzeko oinarriak finkatu dira. Hauexek dira BGIBren ikuspegi horrekin lotutako funtzioak:

- Hainbat baliabideren eskaintzaren hobekuntza sustatzeko gomendioak eta proposamenak egitea eta erakunde egokiei helaraztea.
- Indarkeria kasuen bolumenari eta eboluzioari buruzko diagnostiko eta ebaluazioko azterlanak eta txostenak egitea proposatzea.
- Biktimentzako neurri integralen egokitzapena aztertzea, horren ondorioak eta eraginak ikertzea eta jardun onaren adibideak aztertzea.

Txosten teknikoak egiteko proposamenaren kasuan, ibilbide handiagoa behar da, zeren eta, txostenak egiteko jarraikortasuna lortzen den neurrian, egoerak konparatu eta indarkeriaren ebaluazioari buruzko ebaluazio txostenak egin ahal izango baitira.

Azkenik, betetze-maila handia izan duten funtzioak dira **barne funtzionamenduarekin** lotutako funtzioak. Hauexek dira:

- BGIBk buruturiko jardueren urteko txostena ematea (memoriak).
- Antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arautegia egitea.

3- BGIB-REN ERAGINA

Ezinbestekoa da BGIBk diruaren aldetik zein lanaren aldetik egiten duen ahalegina balioestea eta Bizkaiko gizartean eginiko lana eta izandako lorpen garrantzitsuak ezagutaraztea, betiere erakundea genero indarkeriaren kontrako borrokaren arloan erreferentzia izateko duen eginkizunean kokatuta.

Hobetu beharreko arloa da, argi eta garbi, zeren oso erlazionatuta dauden erakundeetan lan egiten duten pertsonak ez baitute ezagutzen web gunea edo bertan ezagutarazten diren produktuak. BGIB erakunde bat dela deritzogu, baina ez haren funtzioak betetzea erraztu dezaketen produktuak edo kontsultarako tresnak izan daitezkeen produktuak. **Lanaren eta diruaren aldetik egiten diren ahaleginak ikusgai egon beharko lukete.**

BGIB jakinarazteko eta ezagutarazteko plan bat egitea lagungarria izango litzateke egiten ari den lana ezagutarazteko eta balioesteko eta errentagarri

bihurtuko lituzke BGIBn erabiltzen ari diren baliabideak. Ezagunagoa den neurrian, handiagoa izango da norainokoa, lan tresna eta profesional gehiagorentzako ekarpen tresna bihurtuko bailitzateke. Hala, haren ahalmen guztia erabiliko da eta organo bizia bihurtuko da, profesionalen eta herritarren eskura, eta erreferentzia izango da pertsona gehiagorentzat.

Udal harremanetarako sarearekiko laneko prozesuan aipaturiko neurriak abiarazita, gainditu egin dira hasierako errezeloak, eta datuak biltzeko kultura bat ezartzea lortu da; izan ere, aurrez ez zegoen horrelakorik eta oso emaitza onak izan ditu. BGIB askotan bateratze-motorra izan da emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak biltzean. **Behatokiak kontzientziazte-lana egin du datuak biltzeak indarkeriaren egoerak agerrarazteko duen garrantziaz.**

Eranskinak

INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNAK

- OSOKO BILKURA ETA ADIERAZLEEN LAN-TALDEKO PERTSONENTZAKO GALDETEGIA

- UDAL HARREMANETARAKO SAREARENTZAKO GALDETEGIA

- OSOKO BILKURA ETA ADIERAZLEEN
LAN-TALDEA OSATZEN
DUTENENTZAKO GALDETEGIA

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren Ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia

Lan-taldean eta osoko bilkuran parte hartu duten pertsonentzako galdetegia

HARREMANETAREKO PERTSONAREN DATU OROKORRAK

1.1. Galdetegi honetarako harremanetarako pertsona

Izena		Kargua	
Telefonoa		Posta elek.	
Erakundea		BGIBen parte hartuta eman den denbora	

1. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAKO BEHATOKIA

1.1. BGIB bi helburu lortzeko sortu zen. Alde batetik, Bizkaiko **emakumeen kontrako indarkeriaren errealitatea** eta bilakaera **ezagutzea**, izandako aldaketak aztertzeko. Bestetik, genero indarkeriaren arloan eragina duten zerbitzuen eskaintzan hobekuntzak sustatzeko **gomendioak eta proposamenak** egitea.

Jarraian, horiekin lotutako zenbait baieztapen agertzen dira. Mesedez, adierazi helburu bakoitzean duzun adostasun maila.

Galdetegia word dokumentuan betez gero, erantzunak markatzeko, klikatu sagua taula egokian eta idatzi X bat. Okerrekoa markatuz gero, laga hutsik eta jarri gurutzeta aukeraturiko tokian.

	1. helburua. Arazoa ezagutzea				2. helburua. Proposamenak eta gomendioak ematea			
	Desados	Ez oso ados	Ados	Oso ados	Desados	Ez oso ados	Ados	Oso ados
1. Behar bezala bete da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Erabilitako baliabideak beharrei egokitzen zaizkie	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Lan-taldea egokia da helburua betetzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. BGIBren egitura egokia da helburua lortzea lantzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Erakunde parte-hartzaileek beharrezko eremuak ordezkatzen dituzte helburuak lortzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Gizarte eragileen ordezkaritza handitu behar da helburua lortzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Beste erakunde batzuk sartu behar dira helburua lortzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

1.2. Erabilitako baliabideetan, BGIBren egituran edo lan-taldean disfuntzioren bat ikusiz gero, mesedez zein zailtasun mota ikusten den.

1.3 Egoki irizten badiozu, zelan hobetu litzake Behatokiak (BGIB) helburuak lortzearekin lotutako ezaugarriak?

2. BEHATOKIKO KONTSULTAKO PRODUKTUAK (BGIB)

